Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien dimentsio ekonomikoaren azterketa

KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIEN POSIZIONAMENDUARI BURUZKO AZTERLANAK

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

© Egilea: Jabier Retegi, Francisco Carrillo, Ibone Eguia, Mercedes Oleaga, Rakel Vázquez

Argitaratzaile:
Eusko Jaularitzaren Argiltapen Zerbitzua
Servicio Central de publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia- San Sebastian 1, 01010

Koordinatzailea: Observatorio Vasco de la Cultura

Itzultzailea: Lete itzulpenak-traducciones, SL

Disenua eta konposizioa: Eusko Printing Service, SL

ISBN: 978-84-457-3654-8

LG G 442-2022

BY NC ND

KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIEN POSIZIONAMENDUARI BURUZKO AZTERLANAK

Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien dimentsio ekonomikoaren azterketa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

AURKIBIDEA

1. LABURPEN EXEKUTIBOA 9
2. SARRERA 15
3. KSIen DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA 17
EJSN-09 jarduera-adarren perimetroa 18
LES11 (Lanbideen Estatuko Sailkapena) Lanbideen Perimetroa 20
Produktu/Zerbitzuen perimetroa 21
4. KEB-OVC ERAKUNDEAK EGINDAKO AZTERLANA 22
5. KSIen ENPRESA-DEMOGRAFIA 24
6. KSIak LURRALDE HISTORIKOETAN 29
7. ENPRESA-DEMOGRAFIAREN AZTERKETA KONPARATIBOA 31
8. KSIen FORMA JURIDIKOA 34
9. BALIO-KATEEN GARRANTZIA EUSKADIKO KSIen ENPLEGUAN 37
10. KSIen ETA EKONOMIAREN JARDUERA-ADARREN ARTEKO ERLAZIOA 40
11. KSI JARDUERAK ETA KSI LANBIDEETAKO ENPLEGUA 55
12. ONDORIOAK 62
13. BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK 71

1. ERANSKINA: AZTERKETAREN PERIMETROAN SARTUTAKO JARDUERAK..... 73

2. ERANSKINA: AZTERKETAREN PERIMETROAN SARTUTAKO LANBIDEAK..... 77

3. ERANSKINA: AZTERKETAREN PERIMETROAN SARTUTAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUAK..... 80

4. ERANSKINA: KSI JARDUERETAKO ETA JARDUERA-ADARRETAKO ENPLEGUA GURUTZATZEA..... 85

5. ERANSKINA: KULTURA- ETA SORMEN-JARDUERAK, JARDUERA-ADARRAREN ARABERA SAILKATUTA..... 90

TAULEN ZERRENDA

1. taula. KSI jardueren segmentazioa, motaren arabera (zer jarduera-adarretakoak diren) 11

2. taula. Balio-kateak eta jarduera-adarrak gurutzatzea 13

3. taula. Perimetroan sartutako lanbideen sailkapena 20

4. taula. Perimetroan sartutako Produktu eta Zerbitzuen sailkapena 21

5. taula. KSI enpresen datu demografikoak 26

6. taula. KSI enpresak Lurralde Historikoaren arabera 30

7. taula. 100.000 biztanle bakoitzeko KSI enpresen konparazioa 32

8. taula. KSI enpresek enpresen guztizkoan osatzen duten ehunekoaren konparazioa 33

9. taula. KSI enpresak erakunde juridiko motaren arabera 35

10. taula. KSI jardueretako enpleguaren ehunekoa euskal ekonomian, oro har 39

11. taula. Aztertutako jarduera-adarrak 41

12. taula. KSIen eta jarduera-adarraren arteko gurutzaketa, enpleguaren arabera 43

13. taula. KSI propioen eta jarduera-adarraren arteko gurutzaketa, enpleguaren arabera 45

14. taula. Kultura-jardueretako enpleguaren banaketa jarduera-adarraren arabera 47

15. taula. Sormen-jardueretako enpleguaren banaketa jarduera-adarraren arabera 49

16. taula. KSI eremu bakoitzak jarduera-adar bakoitzean duen garrantzia (KSI jardueretako enplegua) 50

17. taula. KSI jardueren segmentazioa, motaren arabera (zer jarduera-adarretakoak diren) 51

18. taula. KSI jarduerek dagokien jarduera-adarrean eta euskal ekonomian osatzen duten ehunekoa 54

19. taula. KSI profil gehien kontratatu dituzten 20 jardueren zerrendas..... 56

20. taula. KSI jarduerak dituzten enpresek KSI lanbideetan egindako kontratu kopurua 58

21. taula. Sormen- eta kultura-eremuetako jarduera guztietan KSI lanbideetako profilak dituzten kontratuen ehunekoa 59

22. taula. Sormen- eta kultura-eremuetako jarduera propioetan KSI lanbideetako profilak dituzten kontratuen ehunekoa 60

23. taula. KSIen balio-kateak eta jarduera-adarrak gurutzatzea 63

24. taula. Euskadiko KSIen balio-kateak 64

25. taula. Euskadiko KSIak jarduera motaren arabera..... 65

26. taula. Manufakturako KSI jardueren laburpen-fitxa 66

27. taula. Merkataritzako KSI jardueren laburpen-fitxa 66

28. taula. Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikako KSI jardueren laburpen-fitxa..... 67

29. taula. KSI jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen laburpen-fitxa..... 68

30. taula. Hezkuntzako KSI jardueren laburpen-fitxa 68

31. taula. Jolaseko eta kulturako KSI jardueren laburpen-fitxa..... 69

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. KSIen definizioa European Commission (2016) lanaren arabera..... 19

2. irudia. Balio-kateen garrantzia Euskadiko KSIen enpleguan..... 38

3. irudia. Balio-kateen garrantzia Euskadiko KSI propioen enpleguan..... 38

4. irudia. KSIen eta jarduERA-adarren arteko gurutzaketa adierazteko eskema..... 42

5. irudia. KSI jardueren (propioak zein osagarriak) guztizko enpleguaren sailkapena, jarduera-adarraren arabera 44

6. irudia. KSI jardueren (propioak) guztizko enpleguaren sailkapena, jarduera-adarraren arabera..... 46

1 LABURPEN EXEKUTIBOA

Dokumentu honetan Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak garatutako proiektu baten emaitza aurkezten da. Proiektu horren helburua Kultura eta Sormen Industrien (KSI) alderdi ekonomikoa aztertzea da, baita Euskadiko industria-sarean duten txertatze-maila ere, betiere industria horien sustapenerako politika publikoak ezartzen lagunduko duen informazio-iturritzat erabiltzearren. Gainera, lan honen bitartez, Jaurlaritzaren beste sail batzuekiko elkarrizketa gurutzatua ahalbidetuko duten testuinguruko elementuak ere ekarri nahi dira, denen artean KSIen sustapena indartzeko asmoz.

Horretarako, hasteko, KSIen perimetroa zehaztu da (bibliografia ikusi), hau da, zein diren enpresa horiek osatzen dituzten jarduerak, lotutako lanbideak eta kultura- eta sormen-edukia duten produktu eta zerbitzuak. KSIen balio-kateak osatzen dituzten jarduera homogeneoetan multzokatu ahal izateko baldintzak betetzen ditu perimetro horrek eta, horretaz gain, beste eremu geografiko batzuekin alderatzea, Euskadiren ezaugarri espezifikoetara egokituta egotea eta politikak definitzera bideratzea ahalbidetzen du.

Oro har, Euskadiko KSIetan 16.886 enpresa biltzen dira eta 33.983 lagunek egiten dute lan enpresa horietan, hau da, guztizko enpleguaren % 3,84 osatzen du. **Sormen-industrien** kasuan, 13.433 langile daude 9.737 enpresatan (enpleguaren % 1,5), eta Arkitekturaren eremuak sortzen du enplegu gehien. **Kultura-industrien** kasuan, 20.550 langile ari dira 7.149 enpresatan, eta Euskadiko enpleguaren % 2,34 osatzen dute.

KSIek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertuz gero, bai **kultura**ren arloko, bai **sormen**aren arloko enpresen kopuruak apur bat jaitsi ziren 2010etik 2015era bitarte, eta gerora susperraldia izan dute, hasierako mailak ere gainditutа. Azken hamarkadan, **kultura**-enpresak -% 5,5 gutxitu dira, eta **sormen**-enpresak, berriz, % 15,2 ugaritu, hizkuntzaren eta diseinuaren arloetako industrien eraginez, funtsean, % 53,42 eta% 48,77 handitu baitira, hurrenez hurren.

KSIen jarduerak Lurralde Historikoaren arabera nola banatzen diren begiratuz gero, Bizkaian daude egoitza Euskadin duten enpresen % 51,3, Gipuzkoan % 36,4 eta Araban % 12,3. Banaketa horri egonkor samar eusten zaio KSIen eremu guztietan, honako hauetan izan ezik: Ondarea, Museoak, Artxiboak eta Liburutegiak; horietan Gipuzkoak % 46 osatzen du, Bizkaiak % 38 eta Arabak % 16.

KSIak bi ikuspegi osagarritatik aztertu dira; 1) balio-katearen ikuspegitik begiratuta eta 2) KSIak osatzen dituzten jarduera moten ikuspegitik begiratuta.

Balio-katearen ikuspegiak zera adierazten du, sormenezko eta/edo kulturako edukia duen ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko helburua duten jardueren artean zer nolako harremana dagoen (fluxu ekonomikoak, produktuak, zerbitzuak, ezagutza). Ikuspegi hori garrantzitsua da sormenezko eta kulturako produktuen edo zerbitzuen eskaintza eta eskaria ez ezik, horrek sortzen duen jarduera ekonomikoa ere ulertzeko.

Jardueren motaren (edo jarduera-adarren) ikuspegiak kulturako eta sormenezko jardueren antolatzeko bidea ematen du, jarduera motaren antzekotasunaren arabera (manufakturakoa, informatikoa, hezkuntzakoa eta abar), eta jarduera horiek multzokatzeko aukera ere ematen du, garapenerako premia komunak partekatzen dituzten taldeetan (besteak beste, teknologiakoak, antolaketakoak, elkartegintzakoak, esportazioa sustatzekoak eta abar), eta, beraz, politika homogeneoak eragin ditzakete.

Balio-katearen ikuspegitik begiratuta, honako sektore hauek nabarmentzen dira sortu duten enplegua dela eta: **ikus-entzunezkoen eta multimediaren sektorea** (5.972 langile), **Liburua eta prentsa** (5.853 langile), **Arte Eszenikoak** (4.077 langile) eta **Arkitektura** (4.002 langile). Enpresa kopuruari dagokionez, **Hizkuntzaren industriak** (4.141 enpresa) eta **Arkitektura** (3.113 enpresa) dira adierazgarrienak.

KSIen ezaugarria da batez besteko tamaina txikia izatea (2,01 langile/enpresa) eta, funtsean, autonomoak direla gehienbat (% 60,2 **kultura**-industrietan eta % 74 **sormen**-industrietan).

KSIak motaren arabera aztertuz gero (zer jarduera-adarretakoak diren), sei segmentu bereiz daitezke, hurrengo taulan ikus daitekeenez. Taulan identifikatutako segmentu bakoitzari esleitutako jarduerak segmentu edo jarduera-adar bakoitzeko guztizko enpleguaren % 90 baino gehiago dira. Gainera, jarduera-adar bakoitzaren gainerako ehunekoa osatzen duten jarduerak ere agertzen dira taulan.

1. TAULA. KSI JARDUEREN SEGMENTAZIOA, MOTAREN ARABERA (ZER JARDUERA-ADARRETAKOAK DIREN)

	Manufakturakoak	Merkataritzakoak	Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista eta Informatika	Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.	Hezkuntza	Jolas- eta kultura-jarduerak
KSI guztizko enpleguaren ehunekoa	**% 11,8**	**% 3,9**	**% 24,0**	**% 33,6**	**% 10,8**	**% 15,8**
Jarduera-adarreko ordezkatutako eremuetako enplegua (>% 90)	Liburuak eta prentsa. Arte grafikoak, liburuen aurreinprimaketa eta inprimaketa Moda-fabrikazioa	Liburuak eta prentsa. Merkaturatzea.	Ikus-entzunezkoak eta multimedia Liburuak eta prentsa	Arkitektura Publizitatea Diseinua Itzulpengintza eta interpretazioa Arte bisualak	Hizkuntzaren industriak Musika	Arte eszenikoak Arte bisualak Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak.
Gainerakoa (<% 10)	Musika	Musika	Musika Bideojokoak Publizitatea/Web-atariak	Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak Arte eszenikoak Liburuak eta Prentsa Ikus-entzunezkoak eta multimedia		

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

KSI jarduerak oso garrantzitsuak dira **J. Edizioa, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikarekin (telekomunikazioak barne)** lotutako ekonomiaren jarduera-adarretan, baita **R. Jolas- eta kultura-jardueren** adarretan ere, % 24ko eta % 33,6ko ehunekoekin, hurrenez hurren. Jarduera-adar horietako hiru enplegutik bat, gutxi gorabehera, sormen- edo kultura-jardueretan diharduten enpresei dagokie.

Jarduera-adarraren ikuspegi horri esker, jarduerak motaren arabera sailka daitezke (manufaktura-jarduerak, merkataritza-jarduerak eta abar). Sailkapen hori garrantzitsua da, besteak beste, hainbat jardueraren arteko arazo homogeneoak ebaluatzeko, nahiz eta balio-kate desberdinetakoak izan, Jaurlaritzako beste sail batzuekiko elkarrizketa ahalbidetzeko, politikak koordinatzeko, politiken jardunari edo ebaluazioari buruzko adierazleak identifikatzeko eta ebaluatzeko, edo teknologia berriak txertatzeko eskakizun komunak ezartzeko.

Hurrengo taulan, balio-kateen eta jarduera-adarraren arabera identifikatutako jarduera motaren arteko lotura ikus daiteke. Balio-katea eta jarduera-adarra partekatzen dituzten 26 azpisegmentu homogeneo identifikatu dira.

2. TAULA. BALIO-KATEAK ETA JARDUERA-ADARRAK GURUTZATZEA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak
ARTE ESZENIKOAK							
ARTE BISUALAK							
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA							
LIBURUAK ETA PRENTSA							
MUSIKA							
ONDAREA, MUSEOAK, ARTX. ETA LIBURUT.							
ARKITEKTURA							
DISEINUA							
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK							
MODA FABRIKAZIOA							
PUBLIZITATEA							
BIDEOJOKOAK							

Iturria. Geuk egina.

KSItzat katalogatutako lanbideetan egindako kontratuei dagokienez, honelako lanbideak dituzten pertsonei kontratu gehien egin dizkieten 20 jardueren artean (2019-2020) 9 jarduera ez dira KSItzat ezarritako perimetroan sartzen (EJSN 4 digitu). Horien artean, kontratu kopuru handia dutelako nabarmentzeko modukoak dira **7860. Aldi baterako laneko enpresetako jarduerak eta 9499. Beste inon sailkatu gabeko beste elkarte-jarduera batzuk.** Kontratuen batez besteko iraupena asko aldatzen da jarduera-adar batetik bestera. **Manufaktura**-jardueren batez besteko iraupena gainerako jarduerena baino luzeagoa da (57,1 egun). Hala ere, **Zinemako, bideoko eta telebista-saioetako produkzioko eta produkzio ondoko jardueren** kasuan, batez beste 7 egunetik beherako iraupena duten kontratuak egiten dituzte.

Gainera, oro har, **kultura**-jardueretan KSI profilak dituzten kontratazioen ehunekoa (% 69,6) **sormenezko** jarduerena baino handiagoa dela (% 45,9) ikus daiteke.

Egindako lanaren ondorioz, KSIak sustatzeko politika publikoak aztertzea gomendatzen da, bai Euskadin, bai beste ingurune geografiko batzuetan, baita balio-kateen eta segmentuen estaldura egiaztatzea ere, jarduera-adarren arabera.

Kokatuta dauden balio-kateari eta motari dagokionez, jarduerak askotarikoak izaki, lehentasunezko azpisektoreak zehaztu behar dira eta Jaurlaritzako beste sail batzuekin duten harremana identifikatu, KSIak sustatzeko politikak koordinatze aldera. Alde horretatik, nahiz eta kasu batzuetan oso gainjarrita egon daitezkeen, ongi bereizi behar dira, alde batetik, KSI enpresetarako laguntzak eta, bestetik, jardueren sormenezko edo kulturako osagaia indartzeko laguntzak.

Gainera, autonomo asko daudela eta enpresa txikiak direla kontuan hartuta, hainbat eremutako garapen-planak kolektibizatzeko/mutualizatzeko potentzialtasuna aztertzea gomendatzen da. Inplikatutako eragileen parte-hartzearen eta mahai sektorialak ezartzearen bitartez, eraldaketa-planak identifikatu behar dira, sektoreari hiru trantsizioei dagokienez aurrera egitea eta Agenda 2030ekin lotzea ahalbidetzearren.

2 | SARRERA

Dokumentu honen helburua Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak (KSIak) aztertzea da, jarduera ekonomiko diren aldetik, hau da, fluxu ekonomikoak, inbertsioa eta enplegua sortzeko duten gaitasunari erreparatuta. *Power* autoreak *European Cluster Observatory* erakunderako egindako *Priority Sector Report: Creative and Cultural Industries* txostenaren arabera, 2009. urtean, Europako KSIetako enpleguaren ehuneko handiena duten eskualdeetako bat da Euskadi. Zehazki, ehuneko hori guztizko enpleguren % 4tik gorako balioan ezartzen du.

Gainera, txosten horretan bertan ezartzen denez, eskualdeko errealitateak eragin handia du KSIen jardueran, eta hirietan metatzen da, argi eta garbi. Horrela, bada, KSIetako enpleguaren ehuneko handiena (% 4,11tik gora) duten 15 hirien artean honako hauek aipatzen dira: Stockholm (SE), Inner London (UK), Praha (CZ), Roma (IT), Oslo (NO), Helsinki (FI), Zurich (CH), Oxford (UK), Hamburgo (DE), Viena (AT), Utrecht (NL), Bratislava (SK), Amsterdam (NL), Budapest (HU) eta Paris (FR).

Dokumentu horretan, eskualdeetako jarduera berritzailea KSIen presentziarekin ere lotzen da, baina ezin da frogatutzat jo enpresa horien jardueraren eta eskualdeko jokabide berritzaile orokorraren arteko erlazioa.

Datu orokor horiek esanguratsuak eta interesgarriak direnez, eta KSIen barruan dauden jardueren aniztasuna kontuan hartuta, ordea, sektoreari lotutako politikak ezartzeko azterketa zehatzagoa egin behar da. Gutxienez, jarduerak gehiago bereizi behar dira eta aldagai anitzeko azterketa egin behar da, jarduera ekonomikoarekin lotutako beste alderdi batzuk kontuan hartuta; izan ere, alderdi horiei esker, KSIen dimentsio eta garrantzi ekonomikoa beste sektore batzuekin eta, aldi berean, beste eskualde-testuinguru batzuekin alderatu ahal izango da.

Helburu horrekin, dokumentu honek Euskadiko KSIetan sakontzen du, fenomeno ekonomikotzat hartuta, eta enpresa horien konplexutasuna eta dimentsioa agerian utzi nahi du, politika publikoak ezartzeko oinarri izan dadin. Horrenbestez, Euskadiko KSIen errealitate ekonomikoren dimentsioa kuantifikatzea da kontua, KSIak Euskadiko jarduera ekonomikoan, oro har, kokatu eta elkarren

arteko erlazioa ulertzea, baita testuinguruko elementuak ekartzea ere, Jaurlaritzako beste sail batzuekin elkarrizketa gurutzatua izateko, KSIen sustapena elkarrekin egin ahal izatearren.

Dokumentuaren norainokoa zehaztu ahal izateko, zenbait ohar egin behar dira.

Argi dago Kulturaren gizartean eta hari lotutako jardueretan sortzen diren ondorioak alderdi ekonomikotik haratago doazela eta funtsezko beste alderdi batzuetan lagungarri direla, hala nola gizarte-kohesioan, ongizatean, espiritu kritikoaren sustapenean, bizi-kalitatean eta beste batzuetan. Hala ere, ikerketa-proiektu honetan, ikuspegi partziala dela jakitun garen arren, KSIetan sakondu nahi dugu, ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, hau da, jarduera ekonomikoa sortzen duen sektoretzat hartuta, eta ekonomia osatzen duten gainerako sektoreekin alderatzeko elementuak ekarri nahi dizkiogu azterketari. Alde horretatik, ez ditugu aintzat hartuko, esate baterako, kultura-dimentsioa duten jarduera "amateurrak".

Azterketa honetatik kanpo geratzen da, halaber, "Modaren merkaturatzea" sektorea, gure helburua KSIen alderdi ekonomikoaren berri izatea baita, eta sektorea sustatzeko politika publikoak ezartzen lagunduko duen informazio-iturri bat izatea. Egoera horretan, gaur egun Kultura Zuzendaritza bere politika bideratzen ari den sektoreen eta perimetroaren berrikuspena aztertuta, modaren fabrikazio-sektorea sartzea erabaki dugu, baina ez merkaturatzearena.

Kulturak beste sektore batzuetan eragin dezakeen arrastatze-efektua ere frogatu da. Dena dela, efektu hori ez da ebaluatzen txosten honetarako egin den azterketa ekonomikoaren motan. (adib.: Guggenheim efektua). Inpaktu hori baloratzeko, ikerketa bereizi bat egin beharko litzateke.

Bigarrenik, kulturak jarduera sortzen du partzialki bere balio-katearen parte diren beste sektore batzuetan (adib.: liburu-argitalpenaren sektorea). Ez da erraza xehetasun-maila egokia lortzea, hainbat sektorek sektore batean sorrarazten duen jarduera ekonomikoa bereizteko adina, guk nahi dugun mailan. Beraz, hurbilketa bat dela jakinik, sektoreak esleituko zaizkio azterketa-perimetroari eta, loturaren mailagatik, KSI esango diegun industriak direla ulertuko da. Bestalde, KSIak garatzen partzialki lagundu dezaketen beste Lotutako Industria batzuk bereizi ahal izango dira.

Hirugarrenik, literatura aztertuta, ez dago iritzi bateratu bakarra KSIetan sartzen denaren gainean. Proiektu honen esparruan, lehenengo fasean, azterketa-perimetroa eta KSIak osatzen dituzten sektoreak adostu dira. Azterketaren oinarritzat, *European Cluster Observatory* (Kultura eta Sormen Industriak) eta Kulturaren Euskal Behatokiaren (KEB-OVC) proposamenak izan ditugu abiapuntu.

Azkenik, datuak izatea funtsezkoa da, eta azterketaren perimetrora egindako lehen hurbilketa batean zera ikus daiteke, EJSNren 4 digituko xehetasun-maila beharrezkoa izango dela KSIen jarduera ekonomikoa gainerako jardueretatik modu eraginkorrean bereizi ahal izateko. Hori horrela izanik, lan honetan, sektorearen datu jakin batzuk aurkeztuko dira; hain zuzen ere, datuak eskuragarri dituzten edo estatistika-sekretua salbatzeko aukera ematen duten ustiapen pertsonalizatuak egin daitezkeen aldagaietako datuak.

3 KSIen DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA

Power (2011) lanean aipatzen denez, KSIei buruzko termino eta eztabaidei buruzko literatura ugari dago. Desberdintasunak dituzten arren, autoreek erabiltzen dituzten terminoek asko dute komunean. Kezkatuta agertzen dira industriaren eta ekonomiaren arloetako azterketetan eta politiketan sarritan baztertuak izan diren industriekin eta, baztertuak izan diren arren, gaur egun, esparru ekonomiko garrantzitsutzat jotzen dira, haien merituei esker. Aipatutako argitalpenean, egileak KSIen definizio hau proposatzen du: merkaturatu daitezkeen produktu, zerbitzu edo jarduerak sortzearekin eta horiez hornitzearekin lotura duten industriak, balioa izateko sorkuntzaren eta kulturaren ekarpenak ezinbestekoak dituztenak.

Dokumentu honen sarreran planteatutako oharrak kontuan hartuta, lehenengo fase gisa eta helburua lortzeko, beharrezkoa izan da dimentsio ekonomikoaren ebaluazioa egin zaien KSIen perimetroa definitzea. Horretarako, KSIak osatzen dituzten jarduerak, KSIekin lotutako lanbideak eta KSIetatik eratorritako produktuak eta zerbitzuak identifikatu dira.

Identifikatutako perimetroaren funtsezko alderdi bat honako baldintza hauek betetzea da:

- Beste eremu geografiko batzuekiko konparagarritasuna. Zehaztutako perimetroak aukera behar du, alde batetik, beste eremu geografiko batzuetako KSIekin lotutako jarduera alderatzeko autonomia-erkidegoei dagokienez, baina baita Europar Batasuneko beste estatu batzuekin ere. Horretarako, ezinbestekoa da KSIen jardueren perimetroaren Europako estandarretan jasotako jarduerak kontuan hartzea.
- Balio-kateak osatzen dituzten jarduerak txertatzea. Identifikatutako perimetroak aukera eman behar du kulturako eta sormenezko produktu eta zerbitzuekin lotutako balio-kateen deskribapen behar bezain osatua egiteko.

- Euskadiren ezaugarri berezietara egokitzea. Definitutako perimetroak aukera ematen d u, halaber, Euskadiren ezaugarri berezietara egokitzeko eta RIS3 estrategiarekin egoki txertatzeko ere. Estrategia horretan zazpi espezializazio-eremu daude, eta KSIak jarduera-katalogo zehatz bat duten espezializazio-eremu horietako bat dela jotzen da. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) aurretiaz egindako lanak erreferentzia eta abiapuntu izan dira.
- Politikak definitzera bideratzea. Perimetroaren definizioak eta horren ondoko azterketek ikuspegi praktikoa izan behar dute, KSIen sustapenerako eta garapenerako politikak modu fokalizatuan ezarri ahal izateko. Besteak beste, KSItzat sailkatutako jardueren eta maila guztietako erakunde publikoetako sailek garatutako politika publikoen arteko erlazioa identifikatu ahal izan behar da.

Perimetroa definitzeko jarraitutako prozesuaren xehetasuna, ateratako ondorioak eta gaiari buruzko literaturaren berrikuspena Orkestra (2021) dokumentuan jasotzen dira.

EJSN-09 jarduera-adarren perimetroa

Lehenik eta behin, KSIen jarduerak osatzen dituzten jarduerak ezarri behar izan dira. Definizio behar bezain zehatza egiteko, azterlanaren irizpideei jarraitzen dieten jarduera-adarrak (EJSN) identifikatu behar dira, 4 digituko xehetasun-maila batean[1].

Horretarako, kanpoko erreferentzia hauek aztertu ditugu:

- *Priority Sector Report: Creative and Cultural Industries.* European Cluster Observatory. 2011
- EUSKADIko KSIetako mugaketa kontzeptuala. Kulturaren Euskal Behatokia. Observatorio Vasco de la Cultura. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.
- COVID-19aren krisiak euskal enpresetan izan dezakeen eraginaren eta susperraldiaren sektore analisia. 2020. Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua. 2020.
- KSIen diagnostikoa Gasteizko hirian. Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutua. 2017.
- *Boosting the competitiveness of cultural and creative industries for growth and Jobs*. (EASME/COSME/2015/003). European Commission

Jarduerak egituratzeko garaian *"Boosting the competitiveness of cultural and creative industries for growth and Jobs. (EASME/COSME/2015/003). European Commission"* dokumentuan oinarritu gara, beste ingurune batzuekiko konparagarritasuna hobetze aldera. Argitalpen horretan KSIak hiru multzotan bereizten ditu: KSIen nukleoa (sormen-industriak eta kultura-industriak), modaren industria eta goi-mailako jarduerak.

1 Hainbat jarduera-adarretan, enpresen banakako azterketa egin behar izan da.

1. IRUDIA. KSIen DEFINIZIOA EUROPEAN COMMISSION (2016) LANAREN ARABERA



Iturria. European Commission (2016).

Aipatutako azken blokeari dagokionez, azpimarratu behar da badirela zenbait jarduera, KSIetatik kanpoko jarduera-adarretan sartuta egonik ere, "goi-mailako (*high-end industries*)" segmentuan sormenezko alderdi bat izan dezaketenak, hala nola gastronomia, bitxigintza, automobilgintza eta beste batzuk. Datu-base estatistikoak ustiatzeari dagokionez, ezin dira industria horien datu ekonomikoak bereizi, eta haien dimentsio ekonomikoaren ebaluazioa egiteko ad-hoc azterketa espezifikoak egin beharko lirateke. Beraz, txosten honetan ez sartzea erabaki dugu.

Ezarritako perimetroaren bitartez, KSIen dimentsio ekonomikoaren osotasunaren eta KSIak osatzen dituzten eremuetako bakoitzaren irudi argia izatea lortu behar dugu, eta kanpoko beste erreferentzia batzuekin alderatzeko aukera ere eman behar du. Ildo horretan, garrantzitsua da KSIen nukleoa osatzen duten jarduera-adarrak (hein handi batean kultura- eta sormen-osagaia duten jarduerak) eta partzialki KSIen balio-katearen parte diren baina beste batzuetan parte hartzen duten adarrak (osagarriak) bereiztea.

Aztergai dugun perimetroan sartutako 70 jarduera-adarrak 1. eranskinean bildu ditugu, honako kategoria hauetan sailkatuta:

- Kultura-jarduera propioak
- Kultura-jarduera osagarriak
- Sormen-jarduera propioak
- Sormen-jarduera osagarriak

LES11 (Lanbideen Estatuko Sailkapena) Lanbideen Perimetroa

KSIekin lotutako sartu beharreko lanbideen perimetroa zehazteko honako dokumentu hauek aztertu ditugu:

- EAEko kultura-arloko enpresen, enpleguaren eta lan-merkatuaren analisia. 2021.
- *ESS-net Culture:* European Statistical System Network on Culture. Final report. Eurostat. 2012.

Argitalpen bakoitzean KSIen barruan sartutako lanbideak aztertu ondoren, 56 lanbide sartu ditugu, honela sailkatuta:

3. TAULA. PERIMETROAN SARTUTAKO LANBIDEEN SAILKAPENA

Kulturaren arlokoak	Sormenaren arlokoak
Jolas-, kultura- eta kirol-jarduerak	Analistak eta software eta multimediaren diseinatzaileak
Artxibozainak, liburuzainak eta antzekoak	Arkitektoak eta hirigileak
Artisauak	Diseinatzaileak
Artista sortzaileak eta interpretatzaileak	Hizkuntzaren industriak
Idazleak eta kazetariak	Publizistak
Arte grafikoetako ofizialak eta langileak	Bideojokoak
Ikus-entzunezko grabaketako eta irrati-difusioko teknikariak	Moda Fabrikazioa
	Moda Merkaturatzea

Iturria. Geuk egina KEB (2021) y ESS-net Culture (2012).

LES11 sailkapenaren arabera aztertutako lanbideen zerrenda 2. eranskinean dago.

Produktu/Zerbitzuen perimetroa

KSIekin lotutako sartu beharreko produktu eta zerbitzuen perimetroa zehazteko honako dokumentu hau aztertu dugu: *ESS-net Culture: European Statistical System Network on Culture. Final report. Eurostat. 2012*

3. eranskinean, sartutako produktu eta zerbitzuak bildu ditugu, honako kategoria hauen arabera sailkatuta:

4. TAULA. PERIMETROAN SARTUTAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUEN SAILKAPENA

- Arkitektura
- Arte eszenikoak
- Arte eszenikoak (partzialki)
- Arte bisualak
- Ikus-entzunezkoak eta multimedia
- Ikus-entzunezkoak eta multimedia (partzialki)
- Hizkuntzak
- Liburuak eta prentsa
- Liburuak eta prentsa (partzialki)
- Ondarea, artxiboak eta liburutegiak
- Ondarea, artxiboak eta liburutegiak (partzialki)
- Diziplinarteko produktuak hainbat eremutarako
- Diziplinarteko produktuak hainbat eremutarako (partzialki)
- Publizitatea

Iturria. Geuk egina KEB (2021) y ESS-net Culture (2012).

4 KEB-OVC ERAKUNDEAK EGINDAKO AZTERLANA

2021ean, KEB-OVC erakundeak "EAEko kultura- eta sormen-arloko enpresen, enpleguen eta lan-merkatuaren analisia (2019)" (KEB, 2021) lana argitaratu du, eta azken 10 urteotako (2009-2019 aldia) datuak biltzen dira bertan.

Azterlan horren arabera, *"Datuen bilakaera begiratuz gero, ikus daiteke 2009 eta 2014 artean kultura-enpresen sarea % 16,2 murriztu zela; hala, 2009an 6.350 izatetik, 5.322 izatera igaro zen 2014an. Urte horretatik aurrera inflexio-puntu bat dago, eta joera-aldaketa bat, aldakuntza txikiarekin, 2017an. EAEko enpresa-sarearen bilakaera bestelakoa da. 2018ra arte beheranzko joera du, baina urte horretan gorantz egiten du. Jarduera ekonomikoen multzoan duen adierazgarritasunari dagokionez, kultura-sektoreak % 3,0 eta % 4,0 artekoa izaten jarraitzen du, eta berreskuratu egin ditu 2010eko mailak (% 3,7 2019an) (7. or.)".*

Horrez gain, *"ekintza-erradioa kultura- eta sormen-sektoreen multzora zabaltzean, sektorearen pisua, EAEko enpresa-sarearen multzoari dagokionez, % 10ean kokatzen da 2015-2019 aldian".*

Eremu adierazgarrienei dagokienez, azterlanean aipatzen denez, *"Hauek dira enpresa gehien dituzten sektoreak: itzulpen eta hizkuntza-prestakuntzako jarduerak (4.094), arkitektura (3.157) eta sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak (2.191)(10. or.)".*

Enpresaren tamainari dagokionez, KEB-OVC (2021) lanean zera ikus daiteke *"0 eta 2 enplegu artean dituzten establezimenduek osatzen dute gehienbat KSIen sektorea (% 84). Joera hori iraunkorra da,*

baita mikroenpresetan ere (3 eta 9 enplegatu artean dituztenak), % 11 izaten jarraitzen baitute; enpresa txikiak (10-49 enplegatu artekoak) % 4 inguru dira; eta azkenik, enpresa ertain eta handiak sektoreko establezimenduen % 0,5 dira"(11. or.).

Bestalde, *"2019an, kultura- eta sormen-industrien sektoreak 68.798 kontratu erregistratu ditu guztira, zeinetatik % 43,5 aisialdi-, kultura- eta kirol-jarduerak diren, eta % 29,8 arte- eta sormen-lanbideak eta interpretazioari lotutakoak. Bitarteko maila batean, ikus-entzunezko grabaketako eta irrati-difusioko enplegu teknikoak daude (% 9,2) eta hizkuntza-industriei lotutakoak (% 7,4)(15. or.)".*

Txostenean, gainera, xehetasun-maila handiagoa ematen da KSIetako kontratazioei buruz, honako alderdi hauei erreparatuta: kontratuak iraunkorrak ala aldi-baterakoak diren, genero-ikuspegia, kontratatutako pertsonen adina eta haien esperientzia.

Azterketa zehatz horri esker, Euskadiko KSIen egoeraren irudi bat eta azterketa bat izan ditzakegu. Horretaz gain, EAEko enpleguaren eta enpresen ratioak konparatzeko azterketa ere egiten da, Estatu osoarekin eta erreferentziako beste Autonomia Erkidego batzuekin.

Bestalde, erreferentziatzat hartutako KEB-OVC (2021) dokumentu honetan sektorearen alderdi ekonomikoan sakontzen da, baita KSIen eta ekonomiaren jarduera-adarren (EJSN09 sailkapenaren arabera) artean dagoen erlazioan ere.

5 KSIen ENPRESA-DEMOGRAFIA

Atal honetan enpresa-demografiari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, hau da, enpresa kopuruaren bilakaerari eta enpresen ezaugarri nagusiei buruzkoak. Hurrengo taulan, KSI enpresen datu nagusiak agertzen dira, eremuka sailkatuta. Zehazki, honako datu hauek adierazten dira: 2010., 2015. eta 2020. urteetako enpresa kopurua[2] , urte horietako gorabeherak, Euskadiko enpresen guztizkoarekiko ehunekoa, 100.000 biztanle bakoitzeko enpresa kopurua eta KSI eremu bakoitzeko batez besteko tamaina.

DIRAE enpresei (egoitza EAEn eta Estatuko gainerako lurraldeetan duten enpresak) buruzko datuak ustiatuta ondorioztatzen denez, ezarritako perimetroaren arabera, 2019. urtearen amaieran, 16.886 enpresa[3] ari dira KSItzat katalogatutako jardueretan. Horietatik, % 42,33 (7.149 enpresa) kultura-arlokoak dira, eta % 57,66 (9.737 enpresa) sormen-arlokoak. Aipatzekoa da **hizkuntzaren industria**rekin[4] lotutako 4.141 enpresa sartu direla.

Lehen aipatutakoez gain, honako eremu hauek dute ordezkaritza handiena: **Arkitektura** (3.113 enpresa), **Liburuak eta Prentsa** (1.771 enpresa), **Ikus-entzunezkoak eta Multimedia** (1.513 enpresa), **Arte bisualak** (1.421 enpresa), **Arte Eszenikoak** (1.414 enpresa) eta **Publizitatea** (1.147 enpresa).

2 DIRAE datu-basetik lortutako datuak dira, Euskadin establezimenduak izanik egoitza soziala Euskadin eta Estatuko gainerako lurraldeetan duten KSI enpresei dagozkienak.

3 Enpresen kategorian honako erakunde mota hauek sartzen dira: sozietate anonimoak, sozietate kooperatiboak, sozietate mugatuak, autonomoak, ondasun-erkidegoak, toki-korporazioak, erlijio-erakundeak eta beste erakunde batzuk, hala nola fundazioak eta elkarteak.

4 EJSN 4 digitu sailkapenaren zehaztasuna dela eta, hizkuntzaren industriaren eremuan baliteke horrekin loturarik ez duten enpresak sartu izana.

Eremu horien atzetik datoz **Diseinuko** enpresak (790 enpresa), **Musika**ren arloko enpresak (592 enpresa), **Moda-fabrikazioa** (537 enpresa), **Ondare, artxibo, museo eta liburutegiak** (438 enpresa) eta **Bideojokoak** (9 enpresa).

Ikus daitekeenez, oro har, Euskadiko KSI enpresen kopuruak beherakada txiki bat izan zuen 2010etik 2015era bitarte eta, horren ondoren, susperraldia izan zuen. KEB-OVC (2021) lanean aurkeztutako datuekin bat etorriz, bai **kultura**-industriek, bai **sormen**-industriek hazkundea izan dute 2015. urtearekin alderatuta, eta sormen-industrien kasuan 2010eko mailak gainditu dituzte.

5. TAULA. KSI ENPRESEN DATU DEMOGRAFIKOAK

	Enpresa kop. (2010)	Enpresa kop. (2015)	Enpresa kop. (2020.01.01)	Aldak. vs. 2015 (%)	Aldak. vs. 2010 (%)	EAEko enpresa guztien gaineko %-a (2021.01.01)	Enpresa kop/EAEko 100.000 bizt.	EAEko enpresen batez besteko tamaina
1. KULTURA	**7.568**	**6.711**	**7.149**	**6,5**	**-5,5**	**4,6**	**325,0**	**2,87**
1.- PROPIOA	**4.918**	**4.263**	**4.569**	**7,2**	**-7,1**	**3,0**	**207,7**	**2,67**
2.- OSAGARRIA	**2.650**	**2.448**	**2.580**	**5,4**	**-2,6**	**1,7**	**117,3**	**3,24**
ARTE ESZENIKOAK	**1.194**	**1.118**	**1.414**	**26,5**	**18,4**	**0,9**	**64,3**	**2,88**
1.- PROPIOA	712	680	833	22,5	17,0	0,5	37,9	2,21
2.- OSAGARRIA	482	438	581	32,6	20,5	0,4	26,4	3,85
ARTE BISUALAK	**1.138**	**1.159**	**1.421**	**22,6**	**24,9**	**0,9**	**64,6**	**1,25**
1.- PROPIOA	1.138	1.159	1.421	22,6	24,9	0,9	64,6	1,25
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	**1.102**	**1.362**	**1.513**	**11,1**	**37,3**	**1,0**	**68,8**	**3,95**
1.- PROPIOA	728	603	641	6,3	-12,0	0,4	29,1	5,00
2.- OSAGARRIA	374	759	872	14,9	133,2	0,6	39,6	3,17
LIBURUAK ETA PRENTSA	**2.712**	**2.079**	**1.771**	**-14,8**	**-34,7**	**1,2**	**80,5**	**3,30**
1.- PROPIOA	1.619	1.213	1.010	-16,7	-37,6	0,7	45,9	3,04
2.- OSAGARRIA	1.093	866	761	-12,1	-30,4	0,5	34,6	3,66
MUSIKA	**645**	**576**	**592**	**2,8**	**-8,2**	**0,4**	**26,9**	**2,70**
1.- PROPIOA	594	503	546	8,5	-8,1	0,4	24,8	2,79
2.- OSAGARRIA	51	73	46	-37,0	-9,8	0,0	2,1	1,67

	Enpresa kop. (2010)	Enpresa kop. (2015)	Enpresa kop. (2020.01.01)	Aldak. vs. 2015 (%)	Aldak. vs. 2010 (%)	EAEko enpresa guztien gaineko %-a (2021.01.01)	Enpresa kop/EAEko 100.000 bizt.	EAEko enpresen batez besteko tamaina
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	**777**	**417**	**438**	**5,0**	**-43,6**	**0,3**	**19,9**	**2,92**
1.- PROPIOA	127	105	118	12,4	-7,1	0,1	5,4	6,71
2.- OSAGARRIA	650	312	320	2,6	-50,8	0,2	14,5	1,52
2. SORMENA	**8.452**	**8.842**	**9.737**	**10,1**	**15,2**	**6,3**	**442,6**	**1,38**
1.- PROPIOA	**8.437**	**8.803**	**9.697**	**10,2**	**14,9**	**6,3**	**440,8**	**1,36**
2.- OSAGARRIA	**15**	**39**	**40**	**2,6**	**166,7**	**0,0**	**1,8**	**4,90**
ARKITEKTURA	**3.461**	**3.198**	**3.113**	**-2,7**	**-10,1**	**2,0**	**141,5**	**1,29**
DISEINUA	**531**	**612**	**790**	**29,1**	**48,8**	**0,5**	**35,9**	**1,47**
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	**2.699**	**3.361**	**4.141**	**23,2**	**53,4**	**2,7**	**188,3**	**0,81**
MODA FABRIKAZIOA	**631**	**512**	**537**	**4,9**	**-14,9**	**0,3**	**24,4**	**2,42**
PUBLIZITATEA	**1.125**	**1.158**	**1.147**	**-0,9**	**2,0**	**0,7**	**52,1**	**3,12**
1.- PROPIOA	1.110	1.119	1.107	-1,1	-0,3	0,7	50,3	3,06
2.- OSAGARRIA	15	39	40	2,6	166,7	0,0	1,8	4,90
BIDEOJOKOAK	**5**	**1**	**9**	**800,0**	**80,0**	**0,0**	**0,4**	**3,00**
Guztira, orokorrean	**16.020**	**15.553**	**16.886**	**8,6**	**5,4**	**11,0**	**767,6**	**2,01**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Kulturaren eremuan, azken hamarkadan bilakaera positiboa izan dute honako enpresa hauek: **Ikus-entzunezkoak eta multimedia, Arte bisualak** eta **Arte eszenikoak.** Aitzitik, enpresa kopuruan beherakada nabarmena izan dute honako hauek: **Ondare, museo, artxibo eta liburutegiak** (jardueren sailkapenean izandako aldaketa bat medio)[5], **Liburuak eta prentsa** eta **Musika**.

Sormen-industriei dagokienez, eta kuantitatiboki duten garrantziagatik, **Hizkuntzaren industria**ko sektoreetako enpresek eta **Diseinuko** enpresek % 53,4ko eta % 48,8ko hazkundea izan dute, hurrenez hurren, 2010etik 2020ra bitarte. Hazkunde hori mailakatua izan da denboran, eta 2015ean tarteko balioa izan zuen muturreko balioen artean.

Enpresa kopuruari dagokionez garrantzi kuantitatiboa du **Bideojokoen** sektoreak, 5 enpresatik 9 enpresara igo baita 2010etik 2020ra bitarte, 2015ean enpresa batera jaitsi ondoren.

Moda fabrikazioak % 14,9ko beherakada izan du 2010-2020 aldian enpresa kopuruari dagokionez, eta **Arkitektura**k % 10,1ekoa. **Publizitatea** hamarkada osoan egonkor izan dela esan daiteke, eta 2020an % 2ko igoera txiki bat izan du 2010. urtearekin alderatuta.

KSI enpresak EAEko enpresen % 10,7 dira. 10.000 biztanle bakoitzeko enpresen ratioa 767,6 da.

Enpresen batez besteko tamainari dagokionez, 2,87 langileko enpresak dira **kultura**-industrien kasuan, eta 1,38 langilekoak **sormen**-industrien kasuan.

5 Ondare, museo, artxibo eta liburutegiak eremuan sartzen den "Ikerketa eta garapen esperimentala gizarte-zientzietan eta humanitateetan" (722) EJSNan bat-bateko jaitsiera gertatu da, beren kontura jarduten duten psikologoak gizarte-zientzietan eta humanitateetan ikerketako eta garapen esperimentaleko jardueretan kodetzen zirelako (EJSN 2009ko 7220 kodea). 2011tik aurrera hasi ziren DIRCEn kodifikazio-akats hori zuzentzen, eta gaur egun ere horrela jarraitzen du; beraz, alderdi hori argi geratu da.

6 KSIak LURRALDE HISTORIKOETAN

Hurrengo taulan, KSIen sektore bakoitzeko enpresa kopuruaren banaketa ikus daiteke, egoitza Lurralde Historikoetan (LH) eta Estatuko gainerako lurraldeetan kokatzen den arabera.

KSIen jarduerak Lurralde Historikoaren arabera nola banatzen diren begiratuz gero, Bizkaian daude egoitza EAEn duten enpresen % 51, Gipuzkoan % 37 eta Araban % 12.

Banaketa horri egonkor samar eusten zaio KSIen eremu guztietan, honako honetan izan ezik: **Ondarea, Museoak, Artxiboak eta Liburutegiak**; kasu horretan, Gipuzkoak % 46 osatzen du, Bizkaiak % 38 eta Arabak % 16.

Bestalde, kuantitatiboki enpresa gutxi badira ere (9 enpresa), egoitza EAEn izanik **Bideojoko**ekin lotutako jardueren % 78k Bizkaian dute egoitza, eta % 22k Gipuzkoan. Araban ez dago erregistratutako enpresarik horrelako jardueretan.

6. TAULA. KSI ENPRESAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

	Lurralde Historikoak				Lurralde Historikoak (EAEko guztizkoaren gaineko %-a)		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Espainiako gainerako lurraldeak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1. KULTURA	**901**	**3.574**	**2.561**	**113**	**% 12,8**	**% 50,8**	**% 36,4**
1.- PROPIOA	**571**	**2.297**	**1.640**	**61**	**% 12,7**	**% 51,0**	**% 36,4**
2.- OSAGARRIA	**330**	**1.277**	**921**	**52**	**% 13,1**	**% 50,5**	**% 36,4**
ARTE ESZENIKOAK	**183**	**671**	**547**	**13**	**% 13,1**	**% 47,9**	**% 39,0**
1.- PROPIOA	103	380	347	3	% 12,4	% 45,8	% 41,8
2.- OSAGARRIA	80	291	200	10	% 14,0	% 51,0	% 35,0
ARTE BISUALAK	196	769	452	4	% 13,8	% 54,3	% 31,9
1.- PROPIOA	196	769	452	4	% 13,8	% 54,3	% 31,9
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	161	789	521	42	% 10,9	% 53,6	% 35,4
1.- PROPIOA	73	329	221	18	% 11,7	% 52,8	% 35,5
2.- OSAGARRIA	88	460	300	24	% 10,4	% 54,2	% 35,4
LIBURUAK ETA PRENTSA	209	880	643	39	% 12,1	% 50,8	% 37,1
1.- PROPIOA	115	495	372	28	% 11,7	% 50,4	% 37,9
2.- OSAGARRIA	94	385	271	11	% 12,5	% 51,3	% 36,1
MUSIKA	84	303	200	5	% 14,3	% 51,6	% 34,1
1.- PROPIOA	74	288	181	3	% 13,6	% 53,0	% 33,3
2.- OSAGARRIA	10	15	19	2	% 22,7	% 34,1	% 43,2
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	68	162	198	10	% 15,9	% 37,9	% 46,3
1.- PROPIOA	10	36	67	5	% 8,8	% 31,9	% 59,3
2.- OSAGARRIA	58	126	131	5	% 18,4	% 40,0	% 41,6
2. SORMENA	**1.150**	**4.979**	**3.508**	**100**	**% 11,9**	**% 51,7**	**% 36,4**
1.- PROPIOA	**1.149**	**4.951**	**3.497**	**100**	**% 12,0**	**% 51,6**	**% 36,4**
2.- OSAGARRIA	**1**	**28**	**11**	**0**	**% 2,5**	**% 70,0**	**% 27,5**
ARKITEKTURA	418	1.524	1.161	10	% 13,5	% 49,1	% 37,4
DISEINUA	79	433	274	4	% 10,1	% 55,1	% 34,9
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	458	2.115	1.515	53	% 11,2	% 51,7	% 37,1
MODA FABRIKAZIOA	51	304	174	8	% 9,6	% 57,5	% 32,9
PUBLIZITATEA	144	596	382	25	% 12,8	% 53,1	% 34,0
1.- PROPIOA	143	568	371	25	% 13,2	% 52,5	% 34,3
2.- OSAGARRIA	1	28	11		% 2,5	% 70,0	% 27,5
BIDEOJOKOAK		7	2		% 0,0	% 77,8	% 22,2
Guztira, orokorrean	**2.051**	**8.553**	**6.069**	**213**	**% 12,3**	**% 51,3**	**% 36,4**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Egoitza Estatuko gainerako lurraldeetan izanik Euskadin jarduerak dituzten KSIak enpresen % 2,5 dira.

7 ENPRESA-DEMOGRAFIAREN AZTERKETA KONPARATIBOA

Atal honetan, Euskadiko kultura- eta sormen-enpresen enpresa-demografia beste autonomia-erkidego eta foru-erkidego batzuetako enpresa-demografiarekin alderatuko dugu, baita Estatu osoko datuekin ere. Zehazki, 100.000 biztanle bakoitzeko KSI enpresen ratioa eta KSI enpresek enpresen guztizkoarekiko osatzen duten ehunekoa konparatuko ditugu.

100.000 biztanle bakoitzeko enpresen ratioari dagokionez, Madril, Katalunia eta Estatuko gainerako lurraldeen azpitik dago Euskadi, baina Nafarroakoak baino zifra handiagoak ditu. Kultura-enpresen kasuan, Euskadi Nafarroaren azpitik dago, batez ere, **Arte eszenikoetako** enpresen ondorioz. **Musika**rekin lotutako enpresen kasuan, Euskadiko kopuruak Madril, Katalunia, Nafarroa edo Estatuko gainerako lurraldeetakoak baino handiagoak dira.

7. TAULA. 100.000 BIZTANLE BAKOITZEKO KSI ENPRESEN KONPARAZIOA

Enpresak/100.000 bizt.	EUSKADI	NAFARROA	KATALUNIA	MADRILGO ERKIDEGOA	GUZTIRA ESPAINIAN
1. KULTURA	**308**	**314**	**434**	**538**	**355**
ARTE ESZENIKOAK	59	82	77	95	73
ARTE BISUALAK	64	62	108	129	85
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	62	47	68	99	51
LIBURUAK ETA PRENTSA	85	85	136	170	115
MUSIKA	23	10	9	11	8
ONDAREA, MUSEOAK, ARTX. ETA LIBURUT.	16	28	36	34	24
2. SORMENA	**393**	**382**	**467**	**575**	**388**
ARKITEKTURA	135	159	122	136	108
DISEINUA	20	10	11	10	8
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	167	152	208	263	178
MODA FABRIKAZIOA	23	19	47	30	37
PUBLIZITATEA	47	43	79	136	57
BIDEOJOKOAK	0,5	0	0	1	0
Guztira, orokorrean	**701**	**697**	**901**	**1.113**	**743**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Sormen-enpresen kasuan, Euskadiko ratioa Nafarroakoa eta Estatukoa baino handiagoa da, baina Madril edo Kataluniakoa baino txikiagoa. **Arkitektura**ren eta **Diseinua**ren kasuak nabarmentzen dira; izan ere, Arkitekturan Euskadik Katalunia gainditzen du eta Madrilgo Erkidegoaren parekotzat jo daiteke eta, Diseinuan, aldiz, Euskadik gainerako erreferentziak gainditzen ditu.

KSI enpresek dauden enpresa guztien gainean osatzen duten ehunekoa aztertzen badugu, oro har, Euskadiren maila (% 10,9) Nafarroakoa (% 10,4) eta Estatukoa (% 10,4) baino handiagoa da, eta Madrilgo Erkidegokoa (% 15,4) eta Kataluniakoa (% 11,1) baino txikiagoa. Sormen-industriak bakarrik kontuan hartuta, Nafarroa, Katalunia eta Estatuko gainerako lurraldeen gainetik dago Euskadi, eta portzentajezko puntu bat baino ez Madrilen azpitik. Alabaina, kultura-industrietan, Katalunia, Madril edo Estatuko batez bestekoaren azpitik dago Euskadi.

Musikaren kasua aipatzekoa da, Euskadik gainerako erreferentziak baino datu nabarmen hobeak baititu (% 0,4).

8. TAULA. KSI ENPRESEK ENPRESEN GUZTIZKOAN OSATZEN DUTEN EHUNEKOAREN KONPARAZIOA

KSI enpresen ehunekoa enpresen guztizkoari dagokionez	EUSKADI	NAFARROA	KATALUNIA	MADRILGO ERKIDEGOA	GUZTIRA ESPAINIAN
1. KULTURA	**4,8%**	**4,7%**	**5,4%**	**6,6%**	**5,0%**
ARTE ESZENIKOAK	0,9%	1,2%	1,0%	1,2%	1,0%
ARTE BISUALAK	1,0%	0,9%	1,3%	1,6%	1,2%
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	1,0%	0,7%	0,8%	1,2%	0,7%
LIBURUAK ETA PRENTSA	1,3%	1,3%	1,7%	2,1%	1,6%
MUSIKA	0,4%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%
ONDAREA, MUSEOAK, ARTX. ETA LIBURUT.	0,3%	0,4%	0,4%	0,4%	0,3%
2. SORMENA	**6,1%**	**5,7%**	**5,8%**	**7,1%**	**5,4%**
ARKITEKTURA	2,1%	2,4%	1,5%	1,7%	1,5%
DISEINUA	0,3%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	2,6%	2,3%	2,6%	3,2%	2,5%
MODA MERKATURATZEA	0,4%	0,3%	0,6%	0,4%	0,5%
PUBLIZITATEA	0,7%	0,6%	1,0%	1,7%	0,8%
BIDEOJOKOAK	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%
Guztira, orokorrean	**10,9%**	**10,4%**	**11,1%**	**13,7%**	**10,4%**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Arkitekturarekin eta **Diseinua**rekin lotutako sormen-enpresen kasuan, Euskadiko ehunekoak gainerako erreferentzietakoak baino handiagoak dira, Nafarroarekin alderatuta izan ezik **Arkitektura**ren kasuan.

8 KSIen FORMA JURIDIKOA

KSIen sektorea formulazio juridikoaren ikuspegitik aztertuz gero, funtsean, autonomoz osatuta dagoela ikusten da (% 60,2 kultura-industrietan eta % 74 sormen-industrietan). Mota horretako erakunde juridikoen ehunekoa handiagoa da propiotzat kalifikatutako jardueretan jarduera osagarrietan baino, eta, bereziki, **Arte bisualetan**. Bigarrenik, sozietate mugatuak % 24,4 dira kultura-industrietan, eta % 18,3 sormen-industrietan.

9. TAULA. KSI ENPRESAK ERAKUNDE JURIDIKO MOTAREN ARABERA

	Enpresa mota (guztizkoaren %-a 2020)							
	SA	S. KOOP.	SM	Autonomoa	Ondasun-erkidegoa	Toki-korporazioa	Beste sozietate bat	Erak. Auto. Erlijio.
1. KULTURA	**2,1**	**2,2**	**24,4**	**60,2**	**3,0**	**0,2**	**7,7**	**0,3**
1.- PROPIOA	**1,7**	**1,9**	**18,3**	**66,6**	**3,0**	**0,4**	**7,8**	**0,4**
2.- OSAGARRIA	**2,7**	**2,7**	**35,3**	**48,9**	**2,9**	**0,0**	**7,4**	**0,1**
ARTE ESZENIKOAK	**1,3**	**1,7**	**23,5**	**59,1**	**2,1**	**0,0**	**12,4**	**0,0**
1.- PROPIOA	1,0	1,3	19,2	66,1	1,9	0,0	10,4	0,0
2.- OSAGARRIA	1,7	2,2	29,6	48,9	2,4	0,0	15,1	0,0
ARTE BISUALAK	0,3	0,6	4,7	90,5	2,0	0,0	1,9	0,0
1.- PROPIOA	0,3	0,6	4,7	90,5	2,0	0,0	1,9	0,0
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	**3,0**	**2,6**	**39,8**	**48,2**	**2,0**	**0,0**	**4,3**	**0,1**
1.- PROPIOA	4,5	3,7	40,6	41,5	1,9	0,0	7,6	0,2
2.- OSAGARRIA	1,9	1,8	39,2	53,1	2,1	0,0	1,8	0,0
LIBURUAK ETA PRENTSA	**3,7**	**2,3**	**30,0**	**53,8**	**6,0**	**0,0**	**3,7**	**0,5**
1.- PROPIOA	3,2	1,9	21,9	61,2	6,2	0,0	4,9	0,8
2.- OSAGARRIA	4,5	2,8	40,7	44,0	5,8	0,0	2,1	0,1
MUSIKA	0,7	2,9	18,2	57,9	2,9	2,4	14,2	0,8
1.- PROPIOA	0,4	2,9	18,5	56,2	3,1	2,6	15,4	0,9
2.- OSAGARRIA	4,3	2,2	15,2	78,3	0,0	0,0	0,0	0,0
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	**2,1**	**5,9**	**24,0**	**36,1**	**0,0**	**0,5**	**29,9**	**1,6**

	Enpresa mota (guztizkoaren %-a 2020)							
	SA	S. KOOP.	SM	Autonomoa	Ondasun-erkidegoa	Toki-korporazioa	Beste sozietate bat	Erak. Auto. Erlijio.
1.- PROPIOA	1,7	5,9	22,0	12,7	0,0	1,7	50,8	5,1
2.- OSAGARRIA	2,2	5,9	24,7	44,7	0,0	0,0	22,2	0,3
2. SORMENA	**0,7**	**1,4**	**18,3**	**74,0**	**2,4**	**0,1**	**2,9**	**0,1**
1.- PROPIOA	**0,7**	**1,4**	**18,1**	**74,2**	**2,5**	**0,1**	**2,9**	**0,1**
2.- OSAGARRIA	**5,0**	**0,0**	**60,0**	**35,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**
ARKITEKTURA	**0,3**	**1,0**	**15,7**	**79,6**	**1,6**	**0,0**	**1,8**	**0,0**
DISEINUA	**0,0**	**1,8**	**15,8**	**78,5**	**2,7**	**0,0**	**1,3**	**0,0**
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	**0,5**	**1,4**	**14,0**	**76,3**	**3,0**	**0,2**	**4,5**	**0,1**
MODA FABRIKAZIOA	**3,0**	**1,5**	**18,8**	**70,8**	**5,2**	**0,0**	**0,7**	**0,0**
PUBLIZITATEA	**2,6**	**2,4**	**41,6**	**49,9**	**1,2**	**0,0**	**2,3**	**0,0**
1.- PROPIOA	2,5	2,5	40,9	50,4	1,3	0,0	2,3	0,0
2.- OSAGARRIA	5,0	0,0	60,0	35,0	0,0	0,0	0,0	0,0
BIDEOJOKOAK	**0,0**	**11,1**	**66,7**	**22,2**	**0,0**	**0,0**	**0,0**	**0,0**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Hirugarrenik, beste sozietate batzuek (fundazioak eta elkarteak, batez ere) kategoria kultura-industrien % 7,7 da, eta % 2,9 sormen-industrietan. Autonomoen nortasun juridikoa duten enpresen ehuneko handia dagoenez, enpresaren tamaina txikia da (2,01 langile enpresa bakoitzeko).

Autonomoen figurapean eratutako enpresa asko daudela egiaztatu denez, KSIak osatzen dituzten sektoreek dituzten erronkei modu kolektiboan aurre egiteko garaian mutualizazioak edo elkartzeak ekar ditzakeen aukerak aztertu egin behar dira.

9

BALIO-KATEEN GARRANTZIA EUSKADIKO KSIen ENPLEGUAN

Hurrengo irudian, KSIekin lotutako balio-kateetako enpleguak KSIen guztizko enpleguan duen garrantzia ikusten da. **Ikus-entzunezkoak eta Multimedia** eta **Liburuak eta Prentsa**ren balio-kateak dira gehien ageri direnak (% 17,6 eta % 17,2, hurrenez hurren), eta, horien atzetik, **Arte eszenikoak** (% 12) eta **Arkitektura** (% 11,8). Gainerako balio-kateek **garrantzi txikiagoa** dute Euskadiko KSIen enpleguan.

2. IRUDIA. BALIO-KATEEN GARRANTZIA EUSKADIKO KSIen ENPLEGUAN



Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Propiotzat jotzen diren jarduerak soilik aztertzen baditugu, hurrengo irudian ikus daitekeenez, **Arkitektura**ren balio-katearen garrantzia % 15,7 da, eta haren atzetik datoz **Publizitatea** (% 13,3), **Hizkuntzaren industriak** (% 13,2), **Ikus-entzunezkoak, multimedia, irratia eta telebista** (% 12,6) eta **Liburuak eta prentsa** (% 12,1). Gainerako balio-kateek garrantzi txikiagoa dute, % 7,2tik % 0,2ra bitartekoa.

3. IRUDIA. BALIO-KATEEN GARRANTZIA EUSKADIKO KSI PROPIOEN ENPLEGUAN



Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Hurrengo taulan, KSIekin lotutako balio-kateetako enpleguak euskal ekonomiaren guztizko enpleguan duen garrantzia ikusten da. Kultura-industrien kasuan, **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** eta **Liburuak eta prentsa** sektoreek Euskadiko enpleguaren % 0,7 osatzen dute. **Arte eszenikoak** enpleguaren % 0,5 dira, eta **Arte bisualak, Musika** eta **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** % 0,2, % 0,2 eta % 0,1, hurrenez hurren.

10. TAULA. KSI JARDUERETAKO ENPLEGUAREN EHUNEKOA EUSKAL EKONOMIAN, ORO HAR

	Enpresa kop.	Enplegua	Euskadiko guztizko enpleguaren gaineko ehunekoa
1. KULTURA	**7.149**	**20.550**	**% 2,34**
ARTE ESZENIKOAK	1.414	4.077	% 0,46
ARTE BISUALAK	1.421	1.772	% 0,20
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	1.513	5.972	% 0,68
LIBURUAK ETA PRENTSA	1.771	5.853	% 0,67
MUSIKA	592	1.599	% 0,18
ONDAR., MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUT.	438	1.277	% 0,15
2. SORMENA	**9.737**	**13.433**	**% 1,50**
ARKITEKTURA	3.113	4.002	% 0,45
DISEINUA	790	1.165	% 0,13
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	4.141	3.354	% 0,38
MODA FABRIKAZIOA	537	1.304	% 0,15
PUBLIZITATEA	1.147	3.581	% 0,40
BIDEOJOKOAK	9	27	% 0,00
Guztira, orokorrean	**16.886**	**33.983**	**% 3,84**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Sormen-industriei dagokienez, **Arkitektura, Hizkuntzaren industriak** eta **Publizitatea** jardueretan ari dira Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu guztien % 0,5, % 0,4 eta % 0,4, hurrenez hurren. Horietaz gain, **Diseinua (% 0,1), Moda Fabrikazioa (% 0,1)** eta **Bideojokoak (% 0,003)** jarduerek ere osatzen dute multzoa.

10 KSIen ETA EKONOMIAREN JARDUERA-ADARREN ARTEKO ERLAZIOA

KSIen jardueren perimetroa Europan ezarritako irizpideen arabera zehaztea inklusibotzat jotzen da, funtsean. Egia da horrek ikuspegi globala izatea ahalbidetzen duela eta ikuspegi hori interesgarria dela alderaketak egiteko aukera ematen duelako, baina aniztasuna aztertzeari eta politikak ezartzeari begira, dauden errealitate guztiak sakonki aztertu eta segmentatzea beharrezkoa da.

Atal honetan, KSI jardueren eta ekonomiaren jarduera-adarren arteko erlazioa aztertuko dugu. Horretarako, sorkuntzaren eta kulturaren eremuak EJSN09ko A21 sailkapenarekin gurutzatu dira.6 Azterlan honen helburua kontuan hartuta, komenigarri iruditu zaigu **"J. Informazioa eta komunikazioak"** jarduera-adarraren barruko azpi-adarrak bereiztea, hala nola **"JA. Argitalpena, ikus-entzunezkoak eta Irrati eta telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak", "JB. Telekomunikazioak" eta "JC. Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduera batzuk; Informazio-zerbitzuak"**. Gainera, jarduera-adar berean bildu dira, alde batetik, "**M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak**" eta, bestetik, "**N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak**", eta honela izendatu dira: "**M+N Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak**".

6 Erreferentziako sailkapenaren arabera (5. eranskinean kontsulta daiteke)

Beraz, kultura- eta sormen-jarduera mota honako jarduera-adar hauen arabera identifikatzea da kontua:

11. TAULA. AZTERTUTAKO JARDUERA-ADARRAK

Kodea	Izenburua	Dibisioa
A	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	01-03
B	Erauzteko industriak	05-09
C	Manufaktura-industria	10-33
D	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	35
E	Ur-hornidura; Saneamenduko jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	36-39
F	Eraikuntza	41-43
G	Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	45-47
H	Garraioa eta biltegiratzea	49-53
I	Ostalaritza	55-56
JA	Argitalpen-jarduerak, ikus-entzunezkoak eta irratiko eta telebistako emisioko jarduerak	58-60
JB	Telekomunikazioak	61
JC	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako bestelako jarduerak; Infor. zerb.	62-63
K	Finantza eta aseguru jarduerak	64-66
L	Higiezinen jarduerak	68
M+N	Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerb. osagarriak.	69-82
O	Administrazio Publikoa eta defentsa; derrigorrezko Gizarte Segurantza	84
P	Hezkuntza	85
Q	Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak	86-88
R	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	90-93
S	Beste zerbitzu batzuk	94-96
T	Etxeetako jarduerak	97-98

Iturria. Geuk egina.

Gurutzatze hori egiteko, 2020. urteko urtarrilaren 1ean zegoen enpleguaren aldagaia hartu dugu, eta datu hori DIRAE datu-basearen ustiapenetik eta jarduera-unitate bakoitzeko benetako enpleguaren bitartez atera dugu.

Azterketa horrek KSIen jarduera motak ezagutzeko aukera ematen du, haien eremu nahiz maila guztietan edo izaera propio edo osagarrian. Gainera, jarduera-adar bakoitzak KSI jardueretan duen garrantzia adierazten du, baita alderantziz ere. Horrek laguntza-politiken segmentazioa errazten du, jarduerak zein jarduera-adarretakoak diren arabera, eta I+G+Ba, esportazioa, digitalizazioa eta abar sustatzeko politiken eraginpeko KSIak zeintzuk diren egiaztatu ere egin daiteke.

4. IRUDIA. KSIen ETA JARDUERA-ADARREN ARTEKO GURUTZAKETA ADIERAZTEKO ESKEMA

	A21 SEKTOREAK																
KSI EREMUA	A	B	C	A	E	E	L	B	JA	JB	JC	L	Kop.	P	Q	R	H
1. KULTURA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
ARTE ESZENIKOAK																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
ARTE BISUALAK																	
1.- PROPIOA																	
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
LIBURUAK ETA PRENTSA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
MUSIKA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
2. SORMENA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
ARKITEKTURA																	
DISEINUA																	
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK																	
MODA FABRIKAZIOA																	
PUBLIZITATEA																	
1.- PROPIOA																	
2.- OSAGARRIA																	
BIDEOJOKOAK																	
Guztira, orokorrean																	

Iturria. Geuk egina.

Hurrengo taulan, gurutzaketa horren emaitza aurkezten da. Zehazki, bere eremuan sailkatutako KSIen perimetroan sartu diren jardueren[7] guztizko enplegua eta dagokion jarduera-adarra adierazten dira.

7 Zenbait kasutan, 4 digituko EJSN sailkapenak ez du behar besteko zehaztasunik, alde batetik, ematen bertan sartuta dauden KSI jarduerak eta horiekin lotutako enplegua eta, bestetik, sormeneko edo kulturako osagai handirik ezinbestean ez duten beste jarduera mota batzuk argi eta garbi bereizteko. Nolanahi ere, badakigu ezin izango dela inoiz ziurtatu EJSN sailkapenean sartutako jardueren % 100a kultura- eta sormen-erakundeei dagokiela, baina adierazgarritasunak garrantzitsua izan behar du, gutxienez, edo Europako perimetro estandarizatuetan jasota egon. Kasu honetan, hainbat jardueraren azterketa xehatu indibidualizatua egin behar izan da eta, horri esker, tipologiaren arabera bereizi eta, horren ondorioz, enplegua hobeto ebaluatu ahal izan dugu. Honako EJSN hauek aztertu ditugu: 5829. Bestelako programa informatikoen argitalpena eta 6201. Informatikako programazioko jarduerak (atxikita daude denak, Europako perimetroan sartuta egoteagatik), 7219. Beste ikerketa eta garapen esperimental batzuk natur zientzietan eta zientzia teknikoetan (186 enplegu atxikita daude KSIekin lotutako fakturazioak direla eta), 8552. Kultura-hezkuntza (enpleguaren % 61 atxikita) eta 8559. Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza (enpleguaren % 21 atxikita).

12. TAULA. KSIen ETA JARDUERA-ADARRAREN ARTEKO GURUTZAKETA, ENPLEGUAREN ARABERA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak	Guztira, orokorrean
1. KULTURA	**2.718**	**1.341**	**5.115**	**2.823**	**1.848**	**1.352**	**5.353**	**20.550**
ARTE ESZENIKOAK					435		3.642	4.077
ARTE BISUALAK					853		919	1.772
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA			3.454	2.465	53			5.972
LIBURUAK ETA PRENTSA	2.641	1.319	1.513	358	22			5.853
MUSIKA	77	22	148			1.352		1.599
ONDAR., MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUT.					485		792	1.277
2. SORMENA	**1.304**		**27**	**196**	**9.579**	**2.327**		**13.433**
ARKITEKTURA					4.002			4.002
DISEINUA					1.165			1.165
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK					1.027	2.327		3.354
MODA FABRIKAZIOA	1.304							1.304
PUBLIZITATEA				196	3.385			3.581
BIDEOJOKOAK			27					27
Guztira, orokorrean	**4.022**	**1.341**	**5.142**	**3.019**	**11.427**	**3.679**	**5.353**	**33.983**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Taulan ikus daitekeenez, txertatzeko proposatutako jarduera-adar guztietatik (22 jarduera-adar), KSI jarduerak honako hauetan koka daitezke: **"C. Manufaktura Industria", "G. Merkataritza", "JA. Argitalpena, ikus-entzunezkoak eta Irrati eta telebista", "JC. Informatika", "M+N. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak", "P. Hezkuntza" eta "R. Jolas- eta kultura-jarduerak"**. Horrela, bada, egiaztatu da KSIetan oso bestelako jarduerak sartzen direla, hala nola manufaktura-jarduera garbiak, merkataritzakoak, baita irakaskuntzako jarduerak ere.

Kultura- eta sormen-jardueren multzoak 33.893 enplegu biltzen ditu Euskadin; horietatik 13.433 enplegu sormen-industriekin lotuta daude, eta 20.550 kultura-industriekin. Kultura-jarduerei dagokienez, enpleguari egindako ekarpenagatik nabarmentzen dira **Ikus-entzunezkoak eta multimedia (5.972 enplegu), Liburuak eta prentsa (5.853 enplegu)** eta **Arte eszenikoak (4.077 enplegu).** Gainera, **Arte bisualak, Musika eta Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** adarretan 1.772 enplegu, 1.599 enplegu eta 1.277 lanpostu daude, hurrenez hurren.

Sormen-jardueren artean, honako hauekin lotutako enpleguak nabarmentzen dira: **Arkitektura (4.002 enplegu), Publizitatea (3.581 enplegu), hizkuntzaren industriak (3.354 enplegu), Moda-fabrikazioa (1.304 enplegu)** eta **Diseinua (1.165 enplegu).** Guztizko zenbatekoa osatzeko, **Bideojokoen jarduerak (27 enplegu).**

Hurrengo grafikoan, KSI jardueren (propioak zein osagarriak) guztizko enpleguaren sailkapena aurkezten dugu, jarduera-adarraren arabera. Ikus daitekeenez, **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** enpleguaren % 33,6 dira, **Arkitekturako zerbitzu teknikoetan (% 11,78)** eta **Publizitate-agentzietan (% 9,96)** oinarrituta. Gainera, kategoria honetan sartzen da **Hizkuntzaren industrietako (% 3,02)** eta **Arte bisualetako (argazkilaritzako jarduerak, % 2,51)** enplegua.

5. IRUDIA. KSI JARDUEREN (PROPIOAK ZEIN OSAGARRIAK) GUZTIZKO ENPLEGUAREN SAILKAPENA, JARDUERA-ADARRAREN ARABERA



Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Jolas- eta kultura-jarduerak eta **Argitalpena, ikus-entzunezkoak eta Irrati eta telebista** guztizko enpleguaren % 15,8 eta % 15,1 dira, hurrenez hurren. KSI jardueren % 11,8 **Manufaktura-industriak** dira eta **Hezkuntzako** jarduerek enpleguaren % 10,8 osatzen dute, funtsean, **Hizkuntzaren industrietan (% 6,85)** eta **musika-hezkuntzan (% 3,98)** oinarrituta. Bestalde, % 8,9k **Informatika**ko jardueretan lan egiten dute.

Hurrengo taulan, KSI jardueren eta jarduera-adarren artean gurutzatutako datuak ikus daitezke, soilik propiotzat jotzen diren jarduerak kontuan hartuta.

13. TAULA. KSI PROPIOEN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARTEKO GURUTZAKETA, ENPLEGUAREN ARABERA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak	Guztira, orokorrean
1. KULTURA		**1.341**	**4.816**	**237**	**906**	**1.352**	**3.551**	**12.203**
ARTE ESZENIKOAK							1.840	1.840
ARTE BISUALAK					853		919	1.772
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA			3.155		53			3.208
LIBURUAK ETA PRENTSA		1.319	1.513	237				3.069
MUSIKA		22	148			1.352		1.522
ONDAREA, MUSEOAK, ARTX. ETA LIBURUT.							792	792
2. SORMENA	**1.304**		**27**		**9.579**	**2.327**		**13.237**
ARKITEKTURA					4.002			4.002
DISEINUA					1.165			1.165
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK					1.027	2.327		3.354
MODA FABRIKAZIOA	1.304							1.304
PUBLIZITATEA					3.385			3.385
BIDEOJOKOAK			27					27
Guztira, orokorrean	**1.304**	**1.341**	**4.843**	**237**	**10.485**	**3.679**	**3.551**	**25.440**

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Jarduera propioak soilik kontuan hartuta, KSIetan 25.440 enplegu daude. KSIetako enpleguaren zifra orokorrarekiko murrizketa nagusiaren arrazoia zera da, **Liburuak eta prentsa (2.641 enplegu)** eta **Ikus-entzunezkoak eta multimedia (2.465 enplegu)** adarrarekin lotutako programazio informatikoko jarduerak industria osagarritzat hartu izana.

Hurrengo irudian, kultura- eta sormen-jarduera propioak jarduera-adarraren arabera banatuta agertzen dira.

6. IRUDIA. KSI JARDUEREN (PROPIOAK) GUZTIZKO ENPLEGUAREN SAILKAPENA, JARDUERA-ADARRAREN ARABERA



Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak (% 41,2)** dira KSI jarduera propioen enplegu-ehunekorik handiena dutenak. Horren atzetik, **Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia eta telebista (% 19), Hezkuntza (% 14,5), Jolas- eta kultura-jarduerak (% 14), Merkataritza (% 5,3)** eta **Manufaktura-industria (% 5,1)** adarrek enpleguaren guztizkoa osatzen dute, ia osorik. Azkenik, eta hein oso txikian, **Informatikak** propiotzat jotzen diren KSIen enpleguaren % 0,9 osatzen du.

Hurrengo taulan, **kultura-jarduera** moten banaketaren xehetasuna aurkezten da, enpleguan oinarrituta. **Kultura-jarduerak**, oro har, jarduera-adar ugaritan sakabanatuta daude: % 26,0 **Jolas- eta kultura-jarduerak**, % 24,9 **Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista**, % 13,7 **Informatikako** enpresak edo % 13,2 **manufaktura**-enpresak. Horretaz gain, enpleguaren % 9,0 **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** adarreko enpresetan dago, % 6,6 **Hezkuntza**n eta % 6,5 **Merkataritza-jardueretan**.

14. TAULA. KULTURA-JARDUERETAKO ENPLEGUAREN BANAKETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak
1. KULTURA	**% 13,2**	**% 6,5**	**% 24,9**	**% 13,7**	**% 9,0**	**% 6,6**	**% 26,0**
ARTE ESZENIKOAK					**% 10,7**		**% 89,3**
1.- PROPIOA							% 100,0
2.- OSAGARRIA					% 19,4		% 80,6
ARTE BISUALAK					**% 48,1**		**% 51,9**
1.- PROPIOA					% 48,1		% 51,9
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA			**% 57,8**	**% 41,3**	**% 0,9**		
1.- PROPIOA			% 98,3		% 1,7		
2.- OSAGARRIA			% 10,8	% 89,2			
LIBURUAK ETA PRENTSA	**% 45,1**	**% 22,5**	**% 25,8**	**% 6,1**	**% 0,4**		
1.- PROPIOA		% 43,0	% 49,3	% 7,7			
2.- OSAGARRIA	% 94,9			% 4,3	% 0,8		
MUSIKA	**% 4,8**	**% 1,4**	**% 9,3**			**% 84,6**	
1.- PROPIOA		% 1,4	% 9,7			% 88,8	
2.- OSAGARRIA	% 100,0						
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK					**% 38,0**		**% 62,0**
1.- PROPIOA							% 100,0
2.- OSAGARRIA					% 100,0		

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Arte eszenikoen eremua, funtsean, **Jolas- eta kultura-jardueretan** lan egiten duten pertsonek osatzen dute, **Erreserba-zerbitzuen** jarduera osagarrian lan egiten duten pertsonen % 10,7a izan ezik. **Arte bisualen** eremuko enpleguaren % 51,9 **Jolas- eta kultura-jardueretan** lan egiten duten pertsonak dira, eta % 48,1, berriz, **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** jarduera-adarrean kokatutako **Argazkilaritzako** jardueretan.

Bestalde, **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** eremuko jarduera propio ia guztiak (% 98,3) **Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista** jarduera-adarreko jardueretan banatuta dago, eta jarduera osagarrien % 89,2 **Informatikako** jarduera-adarrean, programazioko jardueretan. **Liburuak eta Prentsa** eremuan, enpleguaren % 45,1 **Manufaktura**-industrietan kokatzen da, % 25,8 **Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista** jarduerak dira eta % 22,5 **Merkataritza**ko jarduerak. Gainerako % 6,5a **Informatikako** jardueretan banatzen da, hein handienean, eta zati txiki-txiki bat **Komunikabideen ordezkaritza-zerbitzuetan**.

Musikaren eremuko jarduera, funtsean, **Kultura-hezkuntza**ren munduan metatzen da, ezarritako perimetroaren arabera. Gainera, enpleguaren % 6,0 **Soinu-grabazioko eta musika-edizioko jardueretan** kokatzen da. **Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak** eremua, jarduera propiotzat hartuta, gehienbat **Jolas- eta kultura-jardueretan** garatzen da, **Bestelako ikerketa eta garapen esperimentala natura-zientzietan eta zientzia teknikoetan** jarduera osagarrien laguntzarekin.

Jarraian, sormen-jarduera moten banaketaren xehetasuna aurkezten da, enpleguan oinarrituta. **Sormen-industrietako** enpleguaren % 71,3 **Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** jardueretan kokatzen da, % 17,3 **Hezkuntza-jardueretan** (funtsean, **Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza-jardueretan** kokatuta) eta % 9,7 **Manufaktura-industrian.**

15. TAULA. SORMEN-JARDUERETAKO ENPLEGUAREN BANAKETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak
2. SORMENA	**% 9,7**		**% 0,2**	**% 1,5**	**% 71,3**	**% 17,3**	**% 0,0**
ARKITEKTURA					% 100,0		
1.- PROPIOA					% 100,0		
DISEINUA					% 100,0		
1.- PROPIOA					% 100,0		
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK					**% 30,6**	**% 69,4**	
1.- PROPIOA					% 30,6	% 69,4	
MODA FABRIKAZIOA	**% 100,0**						
1.- PROPIOA	% 100,0						
PUBLIZITATEA				% 5,5	% 94,5		
1.- PROPIOA					% 100,0		
2.- OSAGARRIA				% 100,0			
BIDEOJOKOAK			**% 100,0**				
1.- PROPIOA			% 100,0				

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, **Sormen-jarduerak**, oro har, ez dira asko sakabanatzen jarduera-adarretan, eta bateren bat banaka hartuz gero, jarduera homogeneo samarrak direla ere esan dezakegu, enpleguaren ikuspegitik begiratuta. Horrela, bada, **Moda-fabrikazioa Manufaktura**-jarduera bat da, **Bideojokoen** industria **Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista** adarreko jarduera bati dagokio, **Arkitektura, Diseinua eta Publizitatea** jarduerak **Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** adarrari dagozkio (Arkitektoak, Diseinatzaileak eta Publizistak, hurrenez hurren), eta **Hizkuntzaren industriak Hezkuntza**ri eta **Itzulpengintza- eta interpretazio-jarduerei**.

Jarraian, KSI eremu bakoitzak jarduera-adar bakoitzeko KSI jardueren enpleguaren guztizkoan duen garrantzia azalduko dugu. Horri esker, KSI jarduerak motaren arabera segmentatu ahal izango ditugu.

16. TAULA. KSI EREMU BAKOITZAK JARDUERA-ADAR BAKOITZEAN DUEN GARRANTZIA (KSI JARDUERETAKO ENPLEGUA)

	C. Manufaktura industria	G. Merkataritza	JA. Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista	JC. Informatika	M+N. Jarduera profesional, zientifiko, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	P. Hezkuntza	R. Jolas- eta kultura-jarduerak
1. KULTURA	**% 67,6**	**% 100,0**	**% 99,5**	**% 93,5**	**% 16,2**	**% 36,7**	**% 100,0**
ARTE ESZENIKOAK					% 3,8		% 68,0
ARTE BISUALAK					% 7,5		% 17,2
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA			% 67,2	% 81,6	% 0,5		
LIBURUAK ETA PRENTSA	% 65,7	% 98,4	% 29,4	% 11,9	% 0,2		
MUSIKA	% 1,9	% 1,6	% 2,9			% 36,7	
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK					% 4,2		% 14,8
2. SORMENA	**% 32,4**		**% 0,5**	**% 6,5**	**% 83,8**	**% 63,3**	
ARKITEKTURA					% 35,0		
DISEINUA					% 10,2		
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK					% 9,0	% 63,3	
MODA FABRIKAZIOA	% 32,4						
PUBLIZITATEA				% 6,5	% 29,6		
BIDEOJOKOAK			% 0,5				

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Horrela, bada, ikus daiteke **Kultura-jarduerek** garrantzi handiagoa dutela **Merkataritza, Jolas- eta kultura-jarduerak, Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista, Informatika** jarduera-adarretan eta **Manufaktura-industrian.** Dena dela, **Sormen-jarduerek** garrantzi handiagoa dute **Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak, administraziokoak eta zerbitzu osagarriak** adarretan eta **Hezkuntzan.**

Kapitulu honetan aztertutako informazioari esker, KSI jarduerak jarduera-adarraren arabera segmentatu[8] daitezke eta, hartara, jarduera horiek sustatzeko politikak modu egokiagoan ezarri ahal izango dira. Hona hemen, bada, ateratzen diren segmentuak:

17. TAULA. KSI JARDUEREN SEGMENTAZIOA, MOTAREN ARABERA (ZER JARDUERA-ADARRETAKOAK DIREN)

	Manufakturakoak	Merkataritzakoak	Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista eta Informatika	Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.	Hezkuntza	Jolas- eta kultura-jarduerak
KSI guztizko enpleguaren ehunekoa	**% 11,8**	**% 3,9**	**% 24,0**	**% 33,6**	**% 10,8**	**% 15,8**
Jarduera-adarreko ordezkatutako eremuetako enplegua (>% 90)	Liburuak eta prentsa. Arte grafikoak, liburuen aurreinprimaketa eta inprimaketa Moda-fabrikazioa	Liburuak eta prentsa. Merkaturatzea.	Ikus-entzunezkoak eta multimedia Liburuak eta prentsa	Arkitektura Publizitatea Diseinua Itzulpengintza eta interpretazioa Arte bisualak	Hizkuntzaren industriak Musika	Arte eszenikoak Arte bisualak Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak.
Gainerakoa (<% 10)	Musika	Musika	Musika Bideojokoak Publizitatea/Web-atariak	Ondarea, artxiboak, museoak eta liburutegiak Arte eszenikoak Liburuak eta Prentsa Ikus-entzunezkoak eta multimedia		

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

8 Taulan identifikatutako segmentuen deskribapenak aukera ematen du jarduera-adarraren guztizko enpleguaren % 90etik gorako enplegua txertatzeko.

Taulan ikus daitekeenez, KSI jarduerak honako atal hauetan sailka daitezke, jarduera-adarrekin duten erlazioaren arabera:

Manufaktura-jarduerak. Jarduera horiek KSIetako enpleguaren % 11,8 osatzen dute.

Fabrikazio-jarduera osagarriak dira, honako eremu hauetakoak: **Liburuak eta prentsa** (**1811.-Egunkariak inprimatzea, 1812.-Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk, 1813.-Aurreinprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak**), edo **Moda-fabrikazioko** jarduerak (**1320.-Ehunen fabrikazioa, 1330.-Ehunen akabera, 1411.-Larruzko janzkiak egitea, 1412.-Laneko arropa egitea, 1413.-Kanpoko beste janzki batzuk egitea, 1414.-Barneko arropa egitea, 1419.-Beste janzki eta osagai batzuk egitea, 1420.-Larrugintzako artikuluen fabrikazioa, 1431.-Galtzerdiak egitea, 1439.-Puntuko beste janzki batzuk egitea, 1512.-Larrukien, bidaietako artikuluen eta uhalgintza eta gerrikogintzako artikuluen fabrikazioa, 1520.-Oinetakoen fabrikazioa, 3212.-Bitxigintzako eta antzeko artikuluen fabrikazioa** eta **3213.-Imitaziozko bitxigintzako eta antzeko artikuluen fabrikazioa**).

Horiekin batera, bolumen txikiagoa duten arren, kapitulu honetan sartu ditugu **Musika**ko manufaktura-jarduera osagarriak, hala nola **1820.-Grabatutako euskarrien erreprodukzioa** eta **3220.-Musika tresnen fabrikazioa**.

Merkataritza-jarduerak. Jarduera horiek KSI jardueretako enpleguaren % 3,9 osatzen dute.

Hain zuzen ere, **Liburuak eta prentsa (talde horretako % 98,4)** eta **Musika (% 1,6** talde horri dagokionez**).**

Liburuak eta prentsa adarrarekin lotutako jarduerak dira, eta hor sartzen dira **4761.-Liburuen txikizkako merkataritza-establezimendu espezializatuetan** eta **4762.-Egunkarien eta papergintzako artikuluen txikizkako merkataritza-establezimendu espezializatuetan**, eta **Musika**ri dagokionez, jarduera hauek biltzen ditu: **4763.-Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza-establezimendu espezializatuetan**.

Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikako jarduerak. Jarduera horiek KSIetako enpleguaren % 24 osatzen dute.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia eremuari dagokionez, kategoria horretan sartzen dira honako jarduera hauek: **5912.-Zinemako, bideoko eta telebista-saioetako produkzio ondoko jarduerak, 5914.-Zinema erakusteko jarduerak**,

5915.-Zinema eta bideoko produkzio-jarduerak, 5916.-Telebista-saioetako produkzio-jarduerak, 5917.-Zinema eta bideoa banatzeko jarduerak, 6010.-Irratidifusioko jarduerak, 6020.-Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak, 6312.-Web atariak eta **5829.-Informatikako beste programa batzuen argitalpena**[9].

9 EJSN 5829.- Informatikako beste programa batzuen argitalpena EJSN 58 Argitalpena sailkapenaren barruan dago.

Liburuak eta prentsa eremuari dagokionez, honako jarduera hauek biltzen ditu: **5811.-Liburuen argitalpena, 5813.-Egunkarien argitalpena, 5814.-Aldizkarien argitalpena, 5819.-Beste argitaratze-jarduera batzuk** eta **6399.-Beste inon sailkatu gabeko beste informazio-zerbitzu batzuk.**

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak. Jarduera horiek KSI jardueretako enpleguaren % 33,6 osatzen dute.

Kategoria horretan sartzen dira hainbat eremutako profesionalek egiten dituzten jarduerak, hala nola **7420.-Argazkilaritzako jarduerak, 7111.-Arkitekturako zerbitzu teknikoak, 7410.-Diseinu espezializatuko jarduerak, 7430.-Itzulpengintza eta interpretazioko jarduerak, 7311.-Publizitate agentziak, 7219.-Beste ikerketa eta garapen esperimental batzuk natur zientzietan eta zientzia teknikoetan** eta **7220.-Ikerketa eta garapen esperimentala gizarte-zientzietan eta humanitateetan**; halaber, bestelako zerbitzu osagarriak ere sartzen dira, hala nola **7990.-Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak, 7722.-Bideo-zinten eta diskoen alokairua** eta **7312.-Hedabideak ordezkatzeko zerbitzuak**.

Hezkuntza-jarduerak. Jarduera horiek KSI jardueretako enpleguaren % 10,8 osatzen dute.

Honako jarduera hauetako enplegua da: **8552.- Kultura-hezkuntza eta 8559.- Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza**.

Jolas- eta kultura-jarduerak. Jarduera horiek KSI jardueretako enpleguaren % 15,8 osatzen dute.

Kategoria horretan honako jarduera hauek biltzen dira: **9001.-Arte eszenikoak, 9002.-Arte eszenikoen jarduera lagungarriak, 9004.-Ekitaldi-aretoen kudeaketa, 9329.-Beste aisialdi eta entretenitzeko jarduera batzuk, 9003.-Sormen artistikoa eta literarioa, 9102.-Museoetako jarduerak, 9103.-Toki eta eraikin historikoen kudeaketa, 9105.-Liburutegien jarduerak** eta **9106.-Agiritegien jarduerak.**

Hurrengo taulan, KSI jarduerek dagokien jarduera-adarraren euskal ekonomian, oro har, osatzen duten ehunekoa jasotzen da.

KSI jarduerak oso garrantzitsuak dira **J. Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikarekin** (telekomunikazioak barne) lotutako ekonomiaren jarduera-adarretan, baita **R. Jolas- eta kultura-jardueren** adarretan ere, % 35,8ko eta % 32,5eko ehunekoekin, hurrenez hurren. Jarduera-adar horietako hiru enplegutik bat, gutxi gorabehera, sormen- edo kultura-jardueretan diharduten enpresei dagokie.

18. TAULA. KSI JARDUEREK DAGOKIEN JARDUERA-ADARREAN ETA EUSKAL EKONOMIAN OSATZEN DUTEN EHUNEKOA

Jarduera-adarra	KSI jardueren ehunekoa ekonomiako jarduera-adarrari, oro har, dagokionez	KSI jardueretako ehunekoa euskal ekonomiari, oro har, dagokionez
C.- Manufakturakoak	2,3%	0,5%
G.- Merkataritzakoak	1,1%	0,2%
J.- Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia, Telebista eta Informatika	35,8%	0,9%
M+N.-Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.	9,4%	1,3%
P.- Hezkuntza	8,3%	0,4%
R.- Jolas- eta kultura-jarduerak	32,5%	0,6%

Iturria. Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioan oinarrituta.

Bestalde, Euskadiko **Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak** eremuko lanpostuen % 9,4 KSI jarduerak dira, eta **hezkuntzako** enpresetako enpleguaren % 8,3 sormen- edo kultura-hezkuntzako enpresetan kokatuta dago. EAEko **manufaktura** guztiko enpleguaren % 2,3 KSI enpresei dagokie; eta, azkenik, Euskadiko **merkataritzako** enpleguaren % 1,1 KSI enpresei dagokie.

Oro har, sormenezko edo kulturako jarduera duten enpresek euskal ekonomiaren guztizko enpleguaren % 3,84 osatzen dute. KSIekin lotutako **Hezkuntza**, **Manufaktura-jarduerak**, **Jolas- eta kultura-jarduerak**, **Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista** eta **informatika** eta **Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak** eremuetako jarduerak % 0,4, % 0,5, % 0,6, % 0,9 eta % 1,3 dira, hurrenez hurren.

KSIak sustatzeko politikak ezartzeko garaian, segmentu horietako bakoitzean azterketa zehatzagoa egin beharko da KSI enpresek Jaurlaritzaren beste Sailekin loturarik ba ote duten egiaztatuta.

11 KSI JARDUERAK ETA KSI LANBIDEETAKO ENPLEGUA

Aurreko atalean enpleguari buruz aurkeztu dugun informazioaren osagarri, orain, Euskadiko sormen- eta kultura-industriak beste ikuspegi batetik aztertuko ditugu; hain zuzen ere, KSItzat jotako lanbideetan enplegua sortzen duten jarduera diren aldetik. Zehazki, honako hauek aztertuko ditugu: 1) KSI jardueratzat identifikatutako EJSN sailkapenetan sartzen diren enpresek 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarte egindako kontratazioak, eta 2) KSI lanbidetzat identifikatutako profilen kontratazioak (ikus 2. eranskina). Lanbidetik lortutako datuak kodetu egin ditugu anonimo bihurtzearren, eta, kodetze horren bitartez, EJSN 4 digituko kodeak kontratuetako lanbideekin gurutzatu ditugu. Azterketa honen helburua KSI jardueren eta KSI lanbideen arteko erlazioa ikustea da.

Hurrengo taulan, erreferentziako aldian KSI lanbideen kontratu gehien dituzten 20 jardueren zerrenda aurkeztuko dugu. Horretaz gain, aldi horretan egindako kontratu kopurua eta KSI jardueren finkatutako perimetroaren barruan sartzen diren ala ez ere ikusiko dugu.

19. TAULA. KSI PROFIL GEHIEN KONTRATATU DITUZTEN 20 JARDUEREN ZERRENDAS

EJSN jarduera 4 digitu	EJSN KSI	Kontratu kop.	Kontratuen batez besteko iraupena (egunak)
8559. Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza	BAI	13.221	26,6
7820. Aldi baterako laneko enpresen jarduerak	EZ	8.199	2,7
5915. Zinema eta bideoko produkzio jarduerak	BAI	8.109	4,7
5916. Telebista saioetako produkzio jarduerak	BAI	7.937	2,9
5912. Zinemako, bideoko eta telebista saioetako produkzio ondoko jarduerak	BAI	6.890	0,2
9329. Beste aisialdi eta entretenitzeko jarduera batzuk	BAI	5.712	11,7
9499. Beste inon sailkatu gabeko beste elkarte jarduera batzuk	EZ	5.560	15,6
5629. Beste jaki-zerbitzu batzuk	EZ	5.269	31,3
9001. Arte eszenikoak	BAI	4.713	3,7
6020. Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	BAI	3.303	16,2
9311. Kirol instalazioen kudeaketa	EZ	2.523	21,1
8899. Beste inon sailkatu gabeko ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen beste jarduera batzuk	EZ	1.861	14,3
8552. Kultura-hezkuntza	BAI	1.643	66,7
9319. Beste kirol-jarduera batzuk	EZ	1.574	10,7
8411. Herri Administrazioaren jarduera orokorrak	EZ	1.473	63,0
9004. Ekitaldi-aretoen kudeaketa	BAI	1.462	1,0
9002. Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	BAI	1.434	2,7
6010. Irratidifusioko jarduerak	BAI	1.226	37,2
8551. Kirol eta aisialdi hezkuntza	EZ	1.178	19,8
8812. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak ezgaituentzat	EZ	1.116	15,1
GUZTIRA		**103.760**	

Iturria. Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, hautatutako 20 jardueretatik 11 KSI jardueren zehaztutako perimetroaren barruan daude, eta 9 jarduera ez dira berariaz KSI jardueratzat hartzen. Azken horien barruan, **Aldi baterako laneko enpresetako jarduerak** daude, beste enpresa-jarduera batzuekin bitartekaritza-lana egiten duten erakundeak diren aldetik, **Beste inon sailkatu gabeko beste elkarte-jarduera batzuk, Beste jaki-zerbitzu batzuk**[10], **Kirol-instalazioen kudeaketa, Beste inon sailkatu gabeko ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuen beste jarduera batzuk, Beste kirol jarduera batzuk, Herri Administrazioaren**

10 Azterketa xehatua egin ostean, jarduera horrekin lotutako kontratazioak enpresa batean metatzen direla egiaztatu dugu, eta enpresa horrek aipatutako kontratu motarekin erlazioa baduela baieztatuta dago.

jarduera orokorrak, Kirol eta aisialdi hezkuntza eta **Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuen jarduerak ezgaituentzat.**

KSItzat hartutako jardueren barruan, **Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza, Zinema eta bideoko produkzio-jarduerak, Telebista-saioetako produkzio-jarduerak, Zinemako, bideoko eta telebista-saioetako produkzio ondoko jarduerak, Beste aisialdi eta entretenitzeko jarduera batzuk, Beste inon sailkatu gabeko beste elkarte-jarduera batzuk, Beste jaki-zerbitzu batzuk, Arte eszenikoak, Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak, Kirol-instalazioen kudeaketa, Beste inon sailkatu gabeko ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuen beste jarduera batzuk, Kultura-hezkuntza, Beste kirol jarduera batzuk, Herri Administrazioaren jarduera orokorra, Ekitaldi-aretoen kudeaketa, Arte eszenikoen jarduera lagungarriak** eta **Irratidifusioko jarduerak** dira kontratu gehien egin dituztenak.

Batez besteko iraupena nabarmen aldatzen da jarduera-adarraren arabera. **Hezkuntza**-jardueren batez besteko iraupena gainerako jarduerena baino luzeagoa da. Kontrara, **Zinemako, bideoko eta telebista-saioetako produkzioko eta produkzio ondoko** jardueren kasuan, batez beste 5 egunetik beherako iraupena duten kontratuak egiten dituzte.

Kontratazioak KSI jarduera motaren arabera aztertzeko[11], hurrengo taulan KSI profila duten lanbideetako kontratazioak jaso ditugu, baita profil horiekin bat ez datozen kontratazioak ere, KSI profiletako kontratuek guztizkoari dagokionez osatzen duten ehunekoaren beheranzko ordenari jarraikiz. Era berean, kategoria bakoitzak kontratazioen guztizkoaren gainean osatzen duten ehunekoa ere adierazi dugu.

Ikus daitekeenez, **Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista** jarduerak dira garrantzi handieneko segmentua, bai kontratu kopuruaren balio absolutuan, bai KSI profilen ehunekoan. KSI profiletako kontratuen ehunekoa % 91 da segmentu horretan, erreferentziako aldian, hau da, 28.828 kontratu.

11 Erreferentziako sailkapenaren arabera (5. eranskinean kontsulta daiteke)

20. TAULA. KSI JARDUERAK DITUZTEN ENPRESEK KSI LANBIDEETAN EGINDAKO KONTRATU KOPURUA

Segmentua	KSI lanbideetako kontratu kop.	KSI lanbideetako kontratuen -a	KSI ez diren lanbideetako kontratu kop.	KSI ez diren lanbideetako kontratuen -a	Kontratuak, guztira	KSI lanbideak dituzten kontratuen batez besteko iraupena
Argitalpena, Ikus-entzunezkoak, Irratia eta Telebista	28.828	% 91	3.013	% 9,5	31.841	6,5
Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	14.417	% 60,1	9.584	% 39,9	24.001	8,1
Hezkuntza	14.864	% 57,6	10.963	% 42,4	25.827	31,1
Manufaktura-industria	785	% 39,6	1.198	% 60,4	1.983	57,1
Informatika	341	% 24,9	1.027	% 75,1	1.368	41,9
Jard. Prof., zientif. eta teknikoak, adm. eta zerb. A	2.678	% 18,7	11.659	% 81,3	14.337	33,2
Merkataritza	12	% 1,3	881	% 98,7	893	1,9
GUZTIRA	**61.925**	**% 61,8**	**38.325**	**% 38,2**	**100.250**	**14,7**

Iturria. Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta.

Arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueretan 24.001 kontratu egin dituzte, eta horien % 60,1ek KSI profila zuten. **Hezkuntzako** KSI jardueretan erreferentziako aldian egindako kontratuen % 57,6k KSI profila zuten.

Manufaktura motako kultura- eta sormen-jarduerak aztertuz gero, 1.983 kontratu egin dituzte eta horietatik % 39,6 KSI lanbideak ziren. **Informatikako** jarduerak eta **Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak** aintzat hartuta, kontratuen % 24,9 eta % 18,7, hurrenez hurren, KSI lanbideetakoak ziren. Azkenik, **Merkataritza-jarduerek** KSI kontratazio gutxien egin dituzte (% 1,3).

Argitalpena, ikus-entzunezkoak, irratia eta telebista jardueretan eta **Arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueretan** kontratuen batez besteko iraupena 6,5 egun eta 8,1 egun da, hurrenez hurren; aldiz, **Manufaktura**-jardueren kasuan, KSI profila duten kontratuen batez besteko iraupena bi hilabete baino zertxobait laburragoa da (57,1 egun).

Kontratazioak sormen-eremuaren eta kultura-eremuaren arabera aztertuta, hurrengo taulan KSI kontratazioen eta KSI ez diren kontratazioen ehunekoa azalduko dugu. Ikus daitekeenez, zehaztutako jardueren eta lanbideen perimetroaren arabera, kultura-jardueretan KSI profilak dituzten kontratazioen ehunekoa (% 69,6) sormenezko jarduerena baino handiagoa da (% 45,9).

Ikus-entzunezkoak eta multimedia eremuan, kontratuen % 89,3 KSI lanbideetarako izaten da. KSI kontratazioen ehuneko handiena duen eremua da. Aitzitik, **Bideojokoen** eremuko kontratazioen % 3 baino ez da KSI profilekoa.

21. TAULA. SORMEN- ETA KULTURA-EREMUETAKO JARDUERA GUZTIETAN KSI LANBIDEETAKO PROFILAK DITUZTEN KONTRATUEN EHUNEKOA

	BAI	Ez	KSI lanbideetako kontratuen batez besteko iraupena
1. KULTURA	**% 69,6**	**% 30,4**	**10,1**
ARTE ESZENIKOAK	% 59,0	% 41,0	6,5
ARTE BISUALAK	% 68,5	% 31,5	17,4
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	% 89,3	% 10,7	6,2
LIBURUAK ETA PRENTSA	% 35,9	% 64,1	50,0
MUSIKA	% 58,7	% 41,3	47,3
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	% 17,2	% 82,8	33,1
2. SORMENA	**% 45,9**	**% 54,1**	**29,3**
ARKITEKTURA	% 39,4	% 60,6	97,5
DISEINUA	% 45,7	% 54,3	78,9
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	% 53,9	% 46,1	26,6
MODA FABRIKAZIOA	% 29,8	% 70,2	64,8
PUBLIZITATEA	% 15,4	% 84,6	34,5
BIDEOJOKOAK	% 3,0	% 97,0	1,0
Guztira, orokorrean	**% 61,8**	**% 38,2**	**14,8**

Iturria. Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta.

Kultura-eremuen barruan, **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** eremuko kontratuen % 17,2 KSI lanbideetako profilduna da, eta sormen-eremuetan, **Hizkuntzaren industrietan** kontratatzen da horrelako profila duten pertsonen ehuneko handiena.

Oro har, **sormen-**eremuetako kontratazioen batez besteko iraupena (29,3 eguna) luzeagoa da **kultura-**eremuetan baino (10,1 egun). Oro har, KSI jardueretan KSI lanbideetako kontratuen batez besteko iraupena 14,8 egun da. **Bideojokoak**[12]**, Arte eszenikoak, Ikus-entzunezkoak eta multimedia** eremuetan batez besteko iraupena astebetetik beherakoa da. Kontrara, **Arkitektura, Diseinua eta Fabrikazioa** eremuko batez besteko iraupenak bi hilabetetik gorakoak dira.

Hurrengo taulan, aztertutako eremuetan KSI lanbideetako profila duten kontratazioen ehunekoak agertzen dira, soilik jarduera propioak sartuta, hau da, dagokien eremuan osagarritzat jo diren jarduerak alde batera utzita.

22. TAULA. SORMEN- ETA KULTURA-EREMUETAKO JARDUERA PROPIOETAN KSI LANBIDEETAKO PROFILAK DITUZTEN KONTRATUEN EHUNEKOA

	BAI	Ez	KSI lanbideetako kontratuen batez besteko iraupena
1. KULTURA	**% 76,3**	**% 23,7**	**8,9**
ARTE ESZENIKOAK	% 54,6	% 45,4	3,0
ARTE BISUALAK	% 68,5	% 31,5	17,4
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	% 92,0	% 8,0	5,9
LIBURUAK ETA PRENTSA	% 32,2	% 67,8	39,3
MUSIKA	% 59,3	% 40,7	49,1
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	% 69,7	% 30,3	29,0
2. SORMENA	**% 31,6**	**% 68,4**	**29,5**
ARKITEKTURA	% 39,4	% 60,6	97,5
DISEINUA	% 45,7	% 54,3	78,9
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	% 53,9	% 46,1	26,6
MODA FABRIKAZIOA	% 29,8	% 70,2	64,8
PUBLIZITATEA	% 14,7	% 85,3	35,4
BIDEOJOKOAK	% 3,0	% 97,0	1,0
Guztira, orokorrean	**% 64,5**	**% 35,5**	**14,3**

Iturria. Geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta.

12 Eremu horretan KSI kontratazioen kopurua txikia izaki, ezin da zifra adierazgarri bat aintzat hartu.

KSI eremuetako jarduera osagarriak alde batera utzi ostean, KSI profila duten kontratazioen ehunekoak gora egiten du zertxobait, oro har (% 64,5). Hazkunde hori **Kultura-**jarduerengatik, funtsean, gertatu da, KSI profila duten kontratazioen ehunekoa % 69,6tik % 76,3ra igotzen baita. Modu esanguratsuan, **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** eremuan KSI kontratazioen ehunekoak ere gora egin du, % 17,2tik % 69,7ra[13].

Halaber, kontratuen iraupena murriztu egiten da kultura-jardueren kasuan, 10,1 egunetik 8,9 egunera.

13 Lehen ere aipatu dugunez, **7219. Beste ikerketa eta garapen esperimental batzuk natur zientzietan eta zientzia teknikoetan** jarduera **–Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** jardueraren osagarria da– zehatz-mehatz aztertu dugu, zenbaterainoko dimentsioa duen ikusteko. Jarduera propioetako KSI kontratazioak aztertuz gero, sektorearen portaera modu errealagoan islatzen du.

12 | ONDORIOAK

Dokumentu honetan Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak garatutako proiektu baten emaitza aurkezten da. Proiektu horren helburua Kultura eta Sormen Industrien (KSI) alderdi ekonomikoa aztertzea da, baita Euskadiko industria-sarean duten txertatze-maila ere, betiere industria horien sustapenerako politika publikoak ezartzen lagunduko duen informazio-iturritzat erabiltzearren.

European Commission (2012) lanaren arabera, kultura- eta sormen-industrietan askotariko jarduerak biltzen dira eta, bereziki, arkitektura, artisautza, ikus-entzunezkoak (zinema, telebista, bideo-jokoak eta multimedia barnean hartuta), kultura-ondarea, diseinua (moda-diseinua barne hartuta), jaialdiak, musika, arte eszenikoak, interpretazioa, arte bisualak, publizitatea eta irratia. Lan honen testuinguruan, hizkuntzaren industria ere txertatu dugu, aztertzeko.

Jarduera multzo hori bi ikuspegitatik, gutxienez, aztertu daiteke, ikuspegi horiek osagarriak baina bereiziak izanik: 1) balio-katearen ikuspegitik begiratuta eta 2) kultura- eta sormen-industriak osatzen dituzten jarduera moten ikuspegitik begiratuta.

Balio-katearen ikuspegiak zera adierazten du, sormenezko eta/edo kulturako edukia duen ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko helburua duten jardueren artean zer nolako harremana dagoen (fluxu ekonomikoak, produktuak, zerbitzuak, ezagutza). Ikuspegi hori garrantzitsua da sormenezko eta kulturako produktuen edo zerbitzuen eskaintza eta eskaria ez ezik, horrek sortzen duen jarduera ekonomikoa ere ulertzeko.

